# EUSKADI

## Familia Turismoa

Gozatu herrialde txiki honetaz

Familia osoarekin




Jolas mordoa gu hobeto ezagutzeko

EUSKADI BASQUE COUNTRY




FAMILIA turismoa | EUSKADI BASQUE COUNTRY

Ezin konta ahalakoak dira Euskadik zuri, zure taldeari edo zure familiari eskaintzen dizkizuen planak. Plan guzti-guztietan, bertatik bertara biziko dituzu ahazteko zailak izango diren eta itzultzean irrikaz kontatu nahiko dituzun esperientziak. Gustukoa duzun hori bilatu eta gozatu besterik ez duzu egin behar.

Aurki itzazu guztiak gure webean, **https://turismoa.euskadi.eus/eu/** edo eskaneatu QR kode hau

Eskuliburuan logotipo honekin ageri diren enpresak **Familia Turismoa Euskadin Klubeko** kideak dira. Ostatuek, jatetxeek, museoek, bisita gidatuek, natura interpretatzeko zentroek, abentura-parkeek, turismo aktiboko egitasmoek eta abarrek osatzen dute kluba, haurrak dauzkaten familiei zerbitzuak eskaintzen dizkieten eta kalitate- eta segurtasun-betekizunak betetzen dituzten enpresa ondo hautatuek.

etikoa Turismo Euskadi

## Turismo arduratsua

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren helburua da oinarrizko 8 printzipio ezartzea, turismo-agente guztiek eguneroko jardueran txerta ditzaten erantzunkidetasunaren eta jasangarritasunaren kontzeptuak. Turista Arduratsuaren Gidak 10 aholku biltzen ditu, turistaren bidaia bizipen aberasgarri eta jasangarria izan dadin. Bada, eskuliburu honetan, aholku horiek nabarmentzen joango gara.

**Edizioa:** 2023ko martxoa • **Tirada:** 150 ale • © TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA • **Diseinua eta maketazioa:** Bell Komunikazioa • **Edukiak:** Hagoos • **Argazkiak:** Hainbat egile **Inprimatzea:** Grafilur • **L.G.:** VI-31/2016

Debekatuta dago argitalpen honetan bildutako testu, mapa eta/edo irudiak partzialki eta/edo osorik kopiatzea, argitaratzaileen eta egileen aldez aurreko baimenik gabe.




EUSKADI

Familia Turismoa

8 Bilbao
16 Donostia
24 Vitoria-Gasteiz
32 Arabako Errioxa
40 Euskal Kostaldea
48 Euskal Mendiak eta Haranak
56 Mapa eta ostatuak
58 Info praktikoa




# Ezinbesteko 10 esperientzia *Euskadin*

Asko dira Euskadi familiarekin etortzeko ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak. Horregatik aurkezten dizugu hemen inolaz ere ahaztu ezin dituzuenen zerrenda bat. Horretaz gain, liluratuta utziko zaituzteten gauza interesgarri asko aurkituko dituzue. Eta horrela ez bada, eman denbora.

Jolas honen bitartez, ikusiko dituzuen leku interesgarriak kokatuko dituzue, hasteko. Esaterako, 1 Bilbao da. Bete orain zuek hurrengoak. Horrela, leku zoragarri horiek ezagutzen hasiko zarete.

## Koka itzazu

- ◯ Bilbao
- ◯ Donostia
- ◯ Vitoria-Gasteiz
- ◯ Gernikako Batzar Etxea
- ◯ Bizkaia Zubia
- ◯ Gaztelugatxeko Doniene
- ◯ Urdaibai
- ◯ Cristóbal Balenciaga Museoa
- ◯ Loiolako Santutegia
- ◯ Guardia

EUSKADI

(1) Bilbao, (2) Donostia, (3) Gasteiz, (4) Gernikako Batzar Etxea, (5) Bizkaia zubia, (6) Gaztelugatxeko Doniene, (7) Urdaibai, (8) Cristóbal Balenciaga Museoa, (9) Loiolako Santutegia, (10) Guardia.

# EUSKADI

## Familiarekin distantzia txikitan gozatzeko aparta

Ezin gehiago sartu toki hain txikian. Zaila delako hainbeste leku bikain aurkitzea, bata bestearengandik hain gertu. Euskadi aparta da denbora gutxian gauza askoz gozatzeko: paisaia anitza, klima ona, antzinako kultura, ospe handiko gastronomia...

Saiatu gune berdeak eta barrualdeko ondarea ez galtzen, kostaren haize leunaz gozatzen, Arabako Errioxako ardo ezagunak edo txakolina pintxo batekin dastatzen, edo hirietako arkitektura berritzaileenaren artean edo Erdi Aroko kaleetan barrena paseatzen.

Eta ezagutu ezazu bertoko jendea, lurrarekin eta itsasoarekin harreman estua duena. Ikasi pertsonaia ospetsuen historiaz, zeinaren bidez herriaren nortasuna garatu baita, izan itsasoan, industrian nahiz nekazaritzan, anitza eta ekintzailea izanda betiere.

www.euskadituristmo.eus

**The Basque Route** proiektuak Euskadin erabat murgiltzea proposatzen dizu, bere sekretuak ezagutzeko: plater, pintxo eta ardo zaporetsuenak; begiratoki bilatuenak; xarmaz beteriko herriak; ezkutuko hondartzak; hainbat museo ikaragarri; erabat liluratuko zaituzten hiru hiriburu (haiek deskribatzeko #traola-hitzik gabe) eta benetako beste hainbeste esperientzia, zortzi euskal abizenak (edo gehiago) izango bazenitu bezala senti zaitezen.

www.thebasqueroute.eus







EUSKADI





ITSASMUSEUM

# Bilbao

## Modernotasunez betetako distiraz betea

Bere arkitekturaz eta historiaz hiri aproposa: familian mugitzeko plan ugari eskaintzen ditu. Museoak, parkeak, kaleko merkatuak, Itsasadarra... Zatoz gurekin abentura hau bizitzera!



GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA



GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Itsasoaren deia sentituko duzu **Nerbioi Ibaia** itsasontzian zeharkatzen duzunean, eta Bilboren beste ikuspegi bat ezagutuko duzu. Ibilaldi dibertigarri horretan Guggenheim Museoari, Calatravaren Zubizuri zubiari Isozaki dorreei, Euskalduna Jauregiari edo Udaletxeari atera ahalko dizkiezu argazkiak, eta Bizkaia zubiraino iritsiko zara, zein bere kategorian bakuna den eta oraindik ere badabilen eta Munduko Ondare den.

Eraikin horietako asko **Abandoibarran** daude, Ibaiaren ertzean dagoen oinezkoentzako edo bizikletentzako pasealekua. Pasealeku eder horretan ontziolak eta portuko instalazioak zeuden antzina. Orain, aldiz, nazioarteko hainbat artistaren eskulturak ikus daitezke bertan.



ABANDOIBARRA

**Gal zaitez Alde Zaharrean** eta ezagutu zazpi kale ospetsuak. Leku aparta da hiriko pintxo onenak dastatu eta “txikiteoan” ibiltzeko. Somera, Artekale, Tenderia, Belostikale, Carnicería Vieja, Barrenkale eta Barrenkale Barrena ezinbestekoak dira bertako zapore gozoak dastatu nahi badituzue.

**Kirola egin** parke eta lorategi ugarietako batean: patinajea, bizikleta eta korrika ibai-ertzean; futbola, saskibaloia,... Eta uretako kirolak gogoko badituzue, igo zaitezte 6 lagunentzako Paddle Sup taula erraldoi batera edo kanoa batera eta ibili ibaian.



PLAZA BERRIA

*Zatoz Plaza Berrira igandean, merkadillo egunean. Han aurkituko dituzu liburuak, antzinako gauzak, diskoak... Eta kromoen bildumak egiten badituzu han bertan trukatu ahalko dituzu.*

**Erosketak egiteko garaia da**, denda modernoenak aurkituko dituzu. Kalitatea eta nazio artean ospetsuak diren firmak aurkituko dituzu. Haurrentzako Bilboko denda onenak eta jolas-dendak Abandon, Kale Nagusian, Indautxun eta Alde Zaharrean daude.



### Ba al zenekien?

Ontziolan lan egiten zuen gizon bati bere alaba ederrak bazkaria eramateko eguerdiro Itsasadarra txalupaz zeharkatzen zuela eta haren izena eman zaio Bilboko garabia ospetsuenari. Oso ederra zen neskatxoak **Carola zuen izena,** eta hurbiltzen zen bakoitzean, langileek agurtzen zuten. Oso ospetsua egin zen eta horregatik jarri zioten garabiari haren izena.



CAROLA

1879an Plaza Berrirako sarrerak eta arkupeak hormatu ziren urez bete eta goimailako itsas festak antolatzeko, Veneziar erara, gondola eta guzti!

Ba al zenekien deabruaren zubia ere badagoela? **Kastrexana zubia** Donejakue bideko erromesek erabiltzen zuten. Kondairak dio neska gazte batek deabruari saldu ziola arima Kadagoa ibai-ertzera zeraman zubia eraikitzearen truke, han bizi baitzen bere maitea. Bukatzeko harri bat bakarrik falta zenean, gaztea damutu egin omen zen eta oilarraren kantak uxatu omen zuen deabrua. Horrela salbatu zuen arima.



# Bilbao, gero eta + hiri berdeagoa

## Paseatzera gonbidatzen zaitu...

CASILDA ITURRIZAR PARKEA



## eta gozatu Kulturaz

**Casilda Iturrizar Parkea**: urmael politeko ahateei jaten eman ahalko diezue eta jolas parkean gozatu. Udaberriko igandeetan saskibaloi kantxak jartzen dituzte bertan.

**Etxebarria Parkea**: Bilboko zona berde handi bat da. Han erabili daitezke monopatinak, bizikletak, patinak, eta abar. Aste Nagusiko barrakak jartzen dira hemen.

**Bilboko eraztun berdea**: Naturaz gozatzeko diseinatutako ibilbideak eskaintzen ditu.

**Europa parkea**: txurdinaga auzoan dagoen parke handia.



ETXEBARRIA PARKEA

Patinatzeko, bizikletan ibiltzeko, korrika egiteko eta abarrerako aparta. Polikiroldegia ere dago parkean.

**Deustuko parkea**: Itsasadarraren ondoan dagoen zona berdea, Euskalduna Jauregirako eta Abandoibarra pasealekurako ikuspegi hobezinak. Skate-park bat, hockey-pista, saskibaloi-kantxa eta zabuak ditu.

**Plaza Berria**: Bilboko Alde Zaharraren erdi-erdian, arku moduko aterpez eta terraza duten tabernez inguratua. Leku segurua eta lasaia, non egun berezietan (Santo Tomas, Aste Nagusia...) kasetak jartzen dira bisitariek produktu tipikoak dastatzeko eta erosteko.



**Campo Volantín**: Bidegorriak zeharkatzen duen eta zuhaitzez eta atseden hartzeko lekuz inguratutako zabuen zona dituen duen eremu berdea.

**Arenal**: Zona berdeak dituen eta heltzeko erraza den Bilboko parke tradizionala. Jaiegunetan eta igandeetan, Bilboko Orkestra Sinfonikoak kontzertuak eskaintzen ditu hemen. Zabuen zona eta eskalada-murru txiki bat ditu.

### Hizki-zopa
### Bilboko parkeak

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | A | B | R | O | A | E | W | A | D | A |
| A | E | A | A | A | A | A | A | A | D | A |
| B | I | D | A | R | T | E | A | L | A | I |
| K | R | A | E | O | J | A | I | U | E | R |
| E | D | A | Z | G | U | S | A | L | R | R |
| U | E | E | G | T | A | A | A | G | U | A |
| O | U | K | A | C | F | P | S | K | Y | B |
| S | S | T | A | D | J | E | O | A | A | E |
| T | T | Ñ | H | E | T | R | N | R | A | X |
| Q | O | Y | E | A | U | A | A | A | U | T |
| D | A | L | O | Z | E | M | A | C | S | E |

EtxEBARRIA, DOÑA CASILDA, BIDARTE, AMEZOLA. EUROPA, DEUSTO.

Atera barruan duzun artista **Guggenheim Museoa**. Frank Gheryk diseinatutako eraikina, lehorreratutako ontzi itxura duena, hiriaren iragana gogoraraziz. Pinakoteka anitzeko museoak, arte garaikideko erakusketa, nagusiak eta txikiak harrituko ditu. Familian parte hartzeko tailerren programa zabalarengatik galdetu.

Gozatu familiarekin **Arriaga Antzokiaren** opera-programazioaz. Hurbil zaitez musikaren eta antzerkiaren mundura, hiriko eraikin nabarmenen batean. XIX. mendearen bukaeran Juan Crisóstomo de Arriaga bilbotar musikaegilearen omenez ("espainiar Mozarta") eraikitako eraikin honetan sutea gertatu zen 1914an, eta uholdeen eragina ere jasan zuen 1983an.

**Bilboko Itsasmuseumean** itsasoaren eta itsasontzien mundu zirraragarria ezagutzeko aukera izango duzu. Itsasadarrari eta inguruari lotutako itsas ondaretik ibilbidea. Eta mundu honetara hurbiltzeko modurik onena, Playmobil-en klik-en erakusketa bidez.

Merezi du **Campos Elíseos Antzokia** bisitatzea, eraikin modernista ederra delako eta bere programazioarengatik, urte osoan zehar haurrentzako jarduerak antolatzen dituztelako.

Ez ezazue pasatzen utzi **Arte Ederretako Museorako** bisitaldia, non, besteak beste, El Greco, Sorolla, Gauguin edo Zurbaran artisten lanak ikusi ahalko dituzuen. Haurrak ere sartu ahalko dira artearen mundu liluragarrian, jarduera anitzeko programen bitartez.



ARTE EDERREN MUSEOA

### Ba al zenekien?

Ba al dakizu nor den **Puppy**? Guggenheim-eko maskota da. Louise Bourgeois-en armiarma harrigarriaren ondoan museoaren aurrean dagoen lorez betetako zakurra da. Atera argazkia zaintzaile handi horien ondoan!



Guggenheim museoaren kanpoko ur-txorrotekin freskatu udako egun berotsuetan. Haurrek benetan gozatuko dute tarteka ur-txorrostadak botatzen dituzten lurrazpiko iturriekin. Eta freskatu ondoren, zoazte zabuetan jolastera! Hiriko modernoenak dira.



ERRIBERAKO AZOKA

# Zatoz kuxkuxean aritu

**Erriberako merkatu-plazak** XIV. mendean ireki zituen ateak. Bilboko merkatu-eremua Plaza Zaharrean edo Plaza Handian sortu zen, San Anton elizaren ondoan. Egun, Europako estalitako merkatu-plaza handiena da. 10.000 m²-ko eremu komertziala du eta bere hiru solairuetan hainbat produktu saltzen dituzten dendak ditu, zeinen artean produktu freskoenak nabarmentzen diren. Horrez gain, merkatu-plazaren zona batean baserrietan ekoiztutako produktuak saltzen dira zuzenean.



Bizi **Aste Nagusia**. Abuztuko azken egunetan Bilbao festaz betetzen da Aste Nagusian, eta Marijaiak festa hauek ahaztezinak egiten ditu txikienentzat ere.

Futbol estadioaren izena **San Mamés** da gaur egun Casa Misericordia denaren leku berean antzina zegoen ermita baten ondoan zegoelako. Ermita hura erromatarrek koliseora lehoiek zati zezaten eraman zuen Zesareako Mami Sainduaren izenean eraiki zen. Baina lehoiak umea errespetatu eta bizirik utzi omen zuen. Lehoi horrengatik deitzen diete Athletic-eko jokalariei “San Mameseko lehoiak”.




SAN MAMÉS

Athleticcccc...
Guauuuu!

Bilbok bere **Letra mota** ere badu, Horrelakoak gara bilbotarrak! Jatorria hilarrietan dago. Errotulu komertzialetan asko erabiltzen diren letrak dira. Bilatu txapela duen “A”!

ABCDEFGH
IJKLMNÑOP
QRSTUVW
XYZABCDE
FGHIJKLMN
ÑOPQRSTU
VWXYZ123





## koloreztatzera

eta aurkitu pertsonaia nor den



1 2 3 4 5 6

## Euria egin...

...edo eguzkia egin, zatozte **Azkuna Zentrora**, Phillipe Starck diseinatzaileak aisialdi eta kultura gune moderno bihurtu den antzinako ardo-biltegia. Hemen, orotariko kultura jarduerak, janari osasuntsuko jatetxeak, terraza eta igerileku eder bat ere aurkituko dituzue bertan. “txikilandia” ludotekan, ordutegi zabalean, txikientzako ipuin bat irakurri, arteari buruzko liburuak ikusi edo musika entzun ahalko duzu tailer dibertigarrietan gozatzen duten bitartean.



AZKUNA ZENTROA (ALHÓNDIGA BILBAO)



## Ez ahaztu...



KAROLINAK

- **Karolinak** probatzea, hemengo goxorik tipikoena. Diotenez, XX. mendearen erdian, Bilboko gozogile batek bere alaba harritu nahi izan zuen bere urtebetetzean. Gozoa hein izan zen ikusgarria, zeinari alabaren izena eman omen zion. Gurinezko opiltxoak, arroz-pastelak, eta abar... Hiriko gozogintza tradizioari jarraiki.
- Txibierroen platertxo bat (**rabak**) jatea Alde Zaharrean. Askotarikoak daude, txikienek ez dute bat ere utziko!
- **Arenaleko lore-merkatua** bisitatzea igande goizetan. Gozamena zentzumen guztientzat.
- Futbola gogoko baduzu, Athletic ikustera joan behar duzu **San Mamesera**. Ikusgarria benetan. Horrez gain, **Athletic Club Museoaren** ikusi eta futbol zelaira ere sartu ahalko zara eta haren txoko ezkutuenak ere ezagutu, aldagelak eta jokalarien aulkiak esaterako.





BIZKAIA ZUBIA

# Eta Bilbao inguruan dena da *Igo eta jaitsi*



**Bizkaia Zubia gurutzatu behar duzue** hegan egitea bezala da. Zubia XIX. mendearen bukaeran hasi ziren eraikitzen. Ba al zenekien munduan egitura metalikoa zuen eraiki zen lehenengo transbordadorea izan zela? 1893Ko uztailaren 28an inauguratu zen eta 2006az geroztik dago UNESCOren Munduko Ondareen Zerrendan. Bizkaia Zubi S munduko azken zubi transbordadorea. Alberto Palaciok diseinatu zuen, Eiffelen ikasle bat.

Hartu funikularra **Artxandako behatokira** igotzeko. Handik, Bilboko ikuspegi ederrenak edukiko dituzue. Egun eguzkitsuetan itsasoa ere ikusten da! Ikuspuntu honetatik, erraz uler daiteke jendeak zergatik esaten dion “botxo” (zuloa) hiriari. Goian, parke txiki bat dago, paseatzeko eta hiriko builatik ihes egiteko aproposa.

**El Vivero**: Eremu berdeak, haurrentzako jolas-eremuak, patinatzeko pistak, zelaiak, askaria jateko lekuak, tabernak eta abar ditu.

Autoak oso gogoko badituzue, hemen duzue agendan idazteko beste leku bat. **Loizaga dorretxea** oso dibertigarria izan daitekeen museo horietako bat da. Museoko bilduma mundu osoan da ezaguna Rolls-Royce markako modelo guztiak dituelako. Erdi Aroan eraiki zen dorretxe hau 1985ean zaharberritu zen gaur egungo gaztelu itxurarekin, eta hainbat gelaz inguratutako 25 metroko dorrea, zuloa eta harresiak eta zubi altxagarria ere baditu!



LOIZAGA DORRETXEA

Plana osatzeko, handik oso hurbil daude **Pozalagua** kobazuloak, mundu osoan ezagunak bere estalaktita eszentrikoengatik.

Egin bisita Balmasedako **La Encartada Museoa**. Antzina 1892ko txapelen fabrika zena museo bihurtua. Lurralde honen hain adierazle ona den jantzi hau lehen nola egiten zen ikasiko duzue. Fabrikara bisitaz gain, museoak kafetegia du indarrak berri ditzazun, eta baita haurren parkea ere.

Euskal mitologia ezagutu nahi? Zatozte **Izenaduba Basoa-ra**. Mungian kokatuta dagoen parke tematiko honetan **Olentzeroren etxea** ikusi ahalko duzu. Hara hurbiltzen dira euskal haurrak euren kartak entregatzera. Euskarari, euskal ohiturei eta euskal mitologiari buruzko istorio harrigarriak ezagutuko dituzue, eta gozatu antzerkiez eta haurrentzako tailerrez.



KARPIN

Animaliak gogoko badituzu, ezin duzu bisitatu gabe utzi **Karpin Abentura**, familia guztiarentzako parke honetan animaliei buruz gehiago ezagutuko duzue. 55 espezie desberdineko 200 animalia ditu, besteak beste, katamotzak, hartzak, bisonteak, urtxakurrak, oreinak, hegazti harrapariak eta basakatuak. Hamarretik gora dinosauro bizidun ere ikus ditzakegu. Eta gogokoen duzuena abentura bada, onena **Sopuerta Abentura** parkera hurbiltzea da, Bilbotik oso hurbil dagoen ingurune pribilegiatu batean dagoen parkea. Zubi tibetarrak, tirolinak, oreka-zurtoinak eta abar dituzte. Liana bati heldu eta egin jauzia, Tarzanen moduan!



GETXO

Metroan, **eguna kostaldean igaro**: hurbilen dauden hondartzak erditik 20 minutu eskaera daude. Zain dituzue Areeta, Enekuri... Eta kirol portua, familiarekin bazkaltzeko eskaintza zabalarekin. Algortako portu zaharrera hurbildu (Getxo) edo gozatu Plentziako edo Sopelako hondartzan. Getxoko Aquariuma aukera ona da.



POZALAGUA

## Ba al zenekien?

Artxandako miradorean **Hatz-marka** erraldoi bat dago. Juan José Novellak egindako espainiar Gerra Zibileko biktimen omenez egindako eskultura da. 1936an, funikularraren geltokia, patinatzeko pista eta inguruko jatetxeak bonbardatu zituzten, eta horregatik kokatu da han.



**Artxandako funikularraren** makineria Suitzan diseinatu zuten mendiko trenetan adituak ziren ingeniariek, eta garai hartako 488.407,30 pezeta ordaindu ziren (ia 3.000 euro). Gerra Zibilean Bilbao hartu zutenean, bideak eta goiko geltokia bonbardatu zituzten, eta zerbitzua eten behar izan zuten 1938ko uztailera arte. Garai hartan funikularra gauzak garraiatzeko erabiltzen zuten herrikoek, konpontzeko zeramatzaten motoak, baratzeko produktuak edo hiltegira zeramatzaten txahalak, denetarik ikus zitekeen funikularrean.



## INFO praktikoa

*Bilbao · Bizkaia*

**BILBAO TURISMOA**
www.bilbaoturismo.net

**BILBO**
- Guggenheim museoa
  944 35 90 00 · guggenheim-bilbao.es
- Arriaga antzokia
  944 79 20 36--bulegoa
- Itsasmuseum Bilbao
  946 085 500 · www.itsasmuseum.eus
- Campos Eliseos antzokia
  944 438 610/41 · www.teatrocampos.com
- Arte Ederren Museoa
  944 396 060 · www.museobilbao.com
- Artxandako funikularra
  944 454 966 · www.bilbao.eus/funiculorartxanda
- San Mames estadioa
  944 240 877 · www.athletic-club.eus
- Azkuna zentroa, Bilboko alondegia
  944 014 014 · www.azkunazentroa.eus
- Bilboats
  946 424 157 · www.bilboats.com
- Tourné Bilbao · 944 249 465 · tournebilbao.com
- Roqueland · 692 669 996 · roqueland.com

**PORTUGALETE**
- Bizkaia zubia
  944 801 012 · www.puente-colgante.com

**ENKARTERRIAK**
- Pozalagua kobazuloak (Karrantza)
  649 811 673 · www.karrantza.org
- Karpin abentura (Karrantza)
  946 10 70 66 · www.karpinabentura.com
- Sopuerta abentura (Sopuerta)
  663 80 56 09 · www.sopuerta-abentura.com
- La Encartada fabrika-museoa (Balmaseda)
  946 80 07 78 · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/iaencartada
- Loizaga dorrea (Galdames)
  649 412 001 · www.torreloizaga.com

**MUNGIA**
- Izenaduba basoa (Olentzeroren baserria)
  946 740 061 · www.izenaduba.com

**ERANDIO**
- Forestal Park
  608 44 49 39 · www.forestalpark.com/bilbao

Familia Turismoa Euskadin klubeko enpresak dira.



# Donostia

## ezagutu hiriaren txokorik dotoreenak

Ongi etorri Donostiara, hiri segurua eta irisgarria, familiarekin bidaiatzeko aparta. Historia zirraragarria, gastronomia ezin hobea, urre koloreko hondarrezko hondartza ederrak eta haur zein helduentzako aisialdirako eskaintza aparta aurkituko dituzu bertan.

Benetako gozamena da hartan oinez edo bizikletaz ibiltzea. Behar bezala bisitatzeko, hainbat pista emango dizkizugu bidaiari ahalik eta onura gehien ateratzeko. Jolasten ezagutu nahi al duzu?



AQUARIUM

**Bisitatu Haizearen Orrazia** Hiru eskulturak haizea orrazten dute hirira sartu aurretik. Eduardo Chillidak eta Luis Peña Gancheguik eraiki zuten 1977an. Olatuak dauden egunetan, ura indarrez irteten da lurrean dauden zuloetatik gorantz. Ikusgarria benetan.

**Sar zaitez Alde Zaharrean:** ezinbesteko bisita hirira datorren edonorentzat. Hango kaleetan barna ibili eta probatu hango taberna guztietan aurkituko dituzuen pintxoak.

**Ikusi Portua:** anekdotaz betetako leku liluragarria. Gozatu arratsaldeko ibilaldiaz eta, gauean, afaldu itsas portuko jatetxe batean. Gosea egiten joateko, karrakela eta kiskila kukurutxoa eros dezakezu.
Eta han bertan dago Aquariuma, zoragarria!



HAIZEAREN ORRAZIA



DONOSTIAKO PORTUA



Ba al dakizu zer diren karrakelak? Portuan, orratz batez lagunduta, jaten dira.

**Eman paseoa bizikletaz.** Hiri honetan erraz eta segurtasunez ibil zaitezke bizikletan familiarekin. Bizikletak alokatzen dituzten hainbat enpresa daude.

**Igo zaitez tren turistikora.** Hiriko leku interesgarrietatik doan tren honekin handiek eta txikiek gozatuko dute, eta euren argazkirik onenak atera ahalko dituzte.

Eta ibilbide luzatu nahi baldin baduzu, ez ezazu autobus turistikoa pasatzen utzi. Hiria beste ikuspegi batetik ikusiko duzu.

**Kontxako Badian ibili itsasontzian** Itsasontzian ibili eta hiria itsasoaren beste aldetik ikusiko duzu... Ikuspegi zoragarria benetan!

## Ba al zenekien?



**Santa María** eliza, txokolatearen eliza ere esaten zaiona, hura eraikitzeko Venezuelatik Compañía Guipuzcoana de Caracasek ekartzen zuen kakaoarekin, tabakoarekin eta kafearekin, Venezuelako beste hainbat produktuz gain, ordaindu zelako.

Garai hartako **María Cristina** erreginak hemen igarotzen zituen udako oporrak. Hori dela eta, aristokrata ugari eta europar nobleziako jende asko ere etorri zen.

**Raimundo Sarriegui**, zeinaren estatua ikus daitekeen bere izeneko plazan, San Sebastian martxa idatzi zuen 1861ean, hiriaren ereserkia, zeina urtarrilaren 20an egun osoan zehar etengabe entzuten den Donostiako kaleetan.


KONTXAKO BADIA

# Gozatu topera
## Hiritik irten gabe

**Bisitatu Miramar Jauregia eta bere lorategiak:** Erregeen antzinako egoitza bat da. Haren lorategietatik badia osoaren ikuspegi ikaragarri ederra ikus daiteke eta lasai jolas dezakete haurrek, inolako arriskurik gabe.

**Pasea ezazu hiriko parke eta lorategietan zehar.** Aietekoak (zisneak eta ahateak dituen urmaela du), Alderdi Ederrek eta Cristina Eneak jolas-parkea ere dute. Azken honetan urmaela dago ahate eta paumekin. Gainera, Ingurumen Baliabideen zentro bat ere badu.

**Egin kirolen bat:** Donostiako hondartzak apartak dira jolasteko eta surfa, stand up paddle, kayak eta pareko kirolak praktikatzeko... Udan, badian hainbat plataforma jartzen dira, tranpolin eta txirristekin.

**Igo hiru mendietako bat** eta gozatu hango ikuspegi ikaragarriez: **Urgull-en**, hiria babestu zuen gaztelu baten aztarnak daude, eta historiaz betetako txokoak, bazterrak, bideak eta pasabideak aurkituko dituzu inguruan. Dagoeneko 800 urte baino gehiago dituen hiri "gazte" honi buruz gehiago jakiteko, igo Historiako Etxe polita ikusteko. **Igeldon** hiriko ikuspegi onenaz eta bertako jolas-parkeaz gozatu ahalko duzue, eta **Ulian**, goitik bale bila aritzen ziren antzina itsasoari begira. Gainera, merenderoa dago, zabuekin, kafetegiarekin eta familia osoak disfrutatzeko zelai handi batekin ere.


IGELDO

> "Hiru hondartzak hiriaz gozatzeko"





ALDERDI EDER

**Kontxako hondartzari** zor dio badia osoak izena. Munduko hondartza ederrenetako honetan Isabel II erreginak bainuak hartzen zituen itsasoan medikuak hala aginduta. Askok hartzen dituzte bainuak urteko edozein urtarotan. Aparta da bainuak hartu eta paddle surf praktikatzeko.

**Ondarreta hondartza** aurrekoaren jarraian dago, eta haurrentzako jolas-parkea ere badu. Erosoa da eta olatu txikiak ditu... Bikaina da familiarekin egun ahaztezin bat igarotzeko.

**Zurriolako hondartza** surfaren hondartza da. Hara hurbiltzen dira surflari ugari zonako onenetakoak diren olatuak hartzera. Proba ezazu kirol hau Euskadiko Surfing eskolaren baten eskutik.

Sagueseko parketik arrasti zoragarriak ikusiko dituzu.

3 hondartzetan daukazu toldoen eta itzalkinen alokairu-zerbitzua.



Ba al dakizue nola deitzen zaien Kontxa eta Ondarreta hondartzak banatzen dituzten haitzei?
El pico del loro.
Loreto amabirjinaren izenean han zegoen ermitarengatik.
Donostiako haurrei asko gustatzen zaie haitzetara joatea karramarro bila, zuri ere?


ZURRIOLA

## Ba al zenekien?

1875ean, armadak bere maniobra militarrak egiteko erabiltzen zuen kostaldeko lautada eskuratu zuen Udalak eta **Alderdi Eder** lorategiak bihurtu zuen. Belodromoa, zirkoa eta askotariko atrakzioak jarri ziren bertan **Belle Epoque** garaian, eta hori gogorazten digu karruselak.

Derrigorrezkoa da **Igeldo mendira** funikularrez igotzea. 100 urte baino gehiago ditu dagoeneko! Ba al zenekien 1912an inauguratu zenean zuen teknologia eta karrozeria berbera duela oraindik ere? Goian jolas-parke oso berezia dago: suitzar mendira igo edo sartu ibaia misteriotsuan. Atera argazkia!, hori izango da zure oporretako oroigarririk onena.

# Etxean gozo baten inguruan






## Ba al zenekien?

**Bretxa plazaren** izenaren jatorria da 1813ko abuztuaren 31n anglopor-tugaldar aliatuek hiriko harresian hortxe egin zutelako zuloa frantsesak botatzeko. Bide batez, hiria arpilatu eta hondatu zuten. Bonbardaketa gordin baten ondoren, sute izugarri batek alde zahar ia guztia kiskali zuen. Kale berean zeuden bi eliza eta 35 etxe bakarrik salbatu ziren, gaur egun, eta haren ondorioz, abuztuaren 31 izena duen kalekoak hain zuzen ere.

Ba al dakizu zein den **Danborradaren jatorria**? Diotenez, Napoleonen soldaduak Motako gaztelutik Abuztuaren 31 kaleko iturrira jaisten ziren ur bila. Han, ur-kupelak betetzera hurbiltzen ziren hiriko sukaldari eta okinekin elkartzen omen ziren. Soldaduak ur bila zetozela danborrei joten zietela ikusita, isekaz, euren kupelei jotzeari ekiten zieten.



Hiri gastronomiko garrantzitsuenean zaude. Goi sukaldaritzako bertako sukaldeen artean **16 izar Michelin** dituzte guztira. Eskaintza gastronomikoak etxeko platerak, nazioarteko sukaldaritza eta abar eskaintzen dituzten jatetxeak hartzen ditu, txikiak eta nagusiak asebetetzeko aniztasunarekin.

Ezinbestekoa da **"pintxotara joatea"**, hau da, hiriko taberna batetik bestera joatea eta bakoitzak gomendatzen dituen pintxo edo mokadutxoak probatzen joatea. Guztion gusturako miniaturako sukaldaritzaren benetako artelanak, txikienentzat ere bai!

Bertako gastronomia ezagutzeko, bi **merkatuetara** joatea da onena. Haurrek gure sukaldaritzaren koloreak, usainak eta zaporeak ezagutuko dituzte. Bretxako merkatuko kanpoaldea ere ikusgarria da, han jartzen baitituzte, baserritarrek denen bistara euren fruta, barazki eta usain oneko loreen postuak.

Aurkitu Gilda labirintoan zehar






*"Kultura proposamen anitz dituzu zain"*

Familian ere goza daitezke hiriko festa batzuez:

- San Sebastian eguna edo Danborrada: Urtarrilaren 20a.
- Heineken Jazzaldia. Nazioarteko jazzaldia Haurrentzako programazio berezia du: txikijazz. Uztaila
- Musika hamabostaldia. Haurrentzako musika klasikoko jardunaldi berezia. Abuztua
- Aste Nagusia: Abuztuaren 15aren astea.
- Kontxako Bandera. Iraileko lehenengo bi igandeak.
- Donostiako Zinemaldia. Iraila
- Santo Tomás azoka: Abenduaren 21.

**Olentzeroren** magia: Gabonetan, ikazkin mitologiko bat mendietatik jaisten da, Mari Domingik lagunduta, eta Euskal Herriko herri guzti-guztiak zeharkatzen ditu, haurren artean jostailuak eta poza banatzeko.

## Euria egin... Eta euririk ez bada ere






- Hurbil zaitez **San Telmoko museora**: Antzina komentua zena hiriko museo bihurtuta. Arkitektura klasikoa eta modernoa bateratzen dira bertan. Familian gozatzeko jardueren programa zabala du, eta haurrentzako parkea kanpoan.
- Patinatu **txuri-urdin izotz jauregian**: Izotz-pista erraldoian musika jarraituz patinatu ahalko duzu.
- Zoaz **Aquariumera**: Eta aho bete hortz utziko zaitu beirazko tunelak. Handik ikusiko dituzu tiburoiak, mantak, dortokak eta itsasoko espezie ugari.
- Gozatu haurrentzako **Kutxa Ekogunea Parkean**: kalitatezko irizpide pedagogikoak jarraituz dago eraikita. Zenbatu itzazu zuhaitzak, habiak, sareak eta baserri txikitxo bat, material naturalekin eginak guztiak. Naturari buruz ikasiko duzu jolastu ahala.
- Eta **Euskal Itsas Museoa**: Donostiako itsas bizitza eta Euskal Herriak itsasoarekin duen harremana ezagutuko duzu dorretxe batean dagoen museo honetan.

## Ez ahaztu...




- Eman paseoa **Kontxako** badiatik, igo **Alderdi Ederreko** karruselera eta jan izozkia
- Gozatu txokolate beroaz eta txurroez kafetegi batean. Joan piknikean **Santa Clara uhartera** udan: Plan aparta familiarekin gozatzeko, eta tradizioa donostiarren artean. Udan, motordun txalupek eramaten zaituzte haraino.
- Dastatu Alde Zaharreko "**pintxoak**": Haurrentzako ezin hobeak!
- Ikasi **Gilda** bat prestatzen. Ba al dakizu zergatik deitzen den horrela?
- Hiriko hiru mendiak arakatu. Haietan ibili eta itsasoko eta itsaslabarren ikuspegi ederrak ikusi eta haiekin gozatu ahalko duzu.



IGARTUBEITI

# Eta Donostia inguruan

## *aire librean eta lurpean*



ARDITURRI



CHILLIDA LEKU



SAGARDOTEGIA

Astigarragako gunean sagardotegiren batera joan behar duzue, nahitaez. Hain geurea den edari horren sekretuak eta historia ezagutuko dituzue, eta, are, zeuen sagar-zukua egin ahalko duzue! Ikus itzazu sagardotegi askok familiei eskaintzen dizkien lantegiak. Eta gaian gehiago sakondu nahi duzuenok Sagardoetxera hurbildu zaitezkete, sagardoaren museora.

Arditurriko meategietan, Aiako natura-parkearen barruan, senti zaitez espeleologo. Meategi hauetara bisitan etorriz gero, denboran bidaiatuko duzu: argiztapenak eta soinuak giro magikoa sortzen dute meazuloaren barrualdean, meategi hauen historiako garai desberdinetara jauzi egiteko. Eta, benetan ausarta bazara, galde ezazu bertako "abentura-bisitaz".

Txillida Leku aire zabaleko museo bat da, non Txillidaren eskultura bikainetako batzuk erakusgai baitaude. Eskulturak paisaian integratzen dira, betidanik haren parte balira bezala. Lorategian, ingurunearekin ezin hobeto uztartuta dauden altzairuzko eta granitozko eskultura erraldoien ondoan bizi dira pagoak, haritzak eta magnoliak.

Zoaz Oiasso Erromatar Museora. Antzinako Oiasson, gaur egungo Irun, aurkitutako erromatarren garaiko aztarnak biltzen dituen museo arkeologikoa. Jarduera eta tailer didaktiko anitz eskaintzen ditu txikienentzat.



Antzina euskal baserrietan nola bizi ziren jakin nahi al duzu? Hurbil zaitez Igartubeiti Museo-Baserrira. XVI. mendearen erdialdean eraikitako baserri hau euskal baserrien Urrezko Aroaren ordezkari bikaina da. Bota begirada iraganera, txikiek euskal historiari eta kulturari buruz gehiago ikasteko aukera izan dezaten.

*Baietz trenak gustuko izan? Hala bada, Azpeitiko Trenaren Euskal Museoa ikusi behar duzu. Euskadiko trenen historia ezagutuko duzu. Lurrunezko trena nola zebilen ikasiko duzu, eta haietako batean bidaiatu eta denboran atzera egin ahalko duzu. Igo trenera! Bagoaz!*



AZPEITIA

Eta Azpeitian zaudenez, zatozte bitxi arkitektoniko handienetariko bat ikustera, Euskadin balio historiko handikoa, Loiolako Saindutegia alegia. Loiola sendiaren dorretxearen inguruan eraiki zen multzo arkitektoniko bat da. Bi gertaerek etengabeko pelegrinazio-gune bihurtu zuten leku hau: Íñigo López de Loyola 1491an, eta bere bihurketa 1521ean. Bi mende baino gehiago behar izan ziren eraikuntza bukatzeko.

Gure historiaurreari buruz zerbait jakiteko, Ekainberri ikustera hurbil zaitezkete. Ekaineko kobazuloan gure antzinako arbasoek egindako artelanak ikusiko ditugu. Eta, horrez gain, "Ekain abentura" egitera animatzen bazarete, horretarako prestatuta dagoen ehiza-zirkuituan animaliak ehizatu ahalko dituzue. Guztia Sastarraineko ubidearen inguru ederrean. Ibilbidean zehar, inguruko flora eta fauna ezagutuko duzue, eta marrazten eta sua egiten ikasiko duzue, harrapakina prestatzeko...



EKAINBERRI



LOIOLA

## INFO praktikoa

*Donostia · Gipuzkoa*

**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN TURISMOA**
www.sansebastianturismo.com

**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
**Tren turistikoa**
629 650 376 · www.sansebastiancitytour.com/es
**Katamarana**
607 201 155 · www.ciudadsansebastian.com
**Igeldo mendiko jolas-parketa eta funikularra**
943 213 525 / 943 210 564 · www.monteigueldo.es/es
**Eureka! Zientzia Museoa**
943 012 478 · www.eurekamuseoa.es
**San Telmo museoa**
943 481 580 · www.santelmomuseoa.eus
**Txuri Urdin izotz-jauregia**
943 464 404 · www.eltxuri.com
**Aquariuma**
943 44 00 99 · aquariumss.com
**Kutxa Ekogunea haur-parkea**
943 552 020 · www.ekogunea.eus
**Euskal Itsas Museoa**
943 430 051 · .eus/
**Errealaren museoa – Anoeta estadioa**
943 473 953 · www.realsociedad.eus

**ASTIGARRAGA**
**Sagardoetxea** (sagardoaren museoa)
943 550 575 · www.sagardoetxea.eus

**ORIO**
**Pagoetako natura-parkea**
943 830 904 · www.aiapagoeta.com

**IRUN**
**Oiasso museo erromatarra**
943 63 93 53 · www.irun.org/oiasso

**EZKIO-ITSASO**
**Igartubeiti baserri-museoa**
943 722 978 · www.igartubeitibaserria.eus

**OIARTZUN**
**Arditurriko meategiak** (Aiako natura-parkea)
943 495 069 · www.arditurri.com

**ZESTOA**
**Ekainberriko kobazuloak**
943 868 811 · www.ekainberri.eus/

**AZPEITIA**
**Loiolako santutegia**
943 025 000 · loyola.global/es
**Trenaren Euskal Museoa**
943 150 677 · museoa.euskotren.eus/

Familia Turismoa Euskadin klubeko enpresak dira.



ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA

# Vitoria-Gasteiz

## Historia luzeko hiria, berdez inguratua



Ongi etorri Vitoria-Gasteizera, Europako hiri berdeenetako bat eta, zalantzarik gabe, harrituta utziko zaituztena. Historia luzea duen eta oinezkoentzako bakarrik egokitutako Erdi Aroko erdigunea eta aukera anitz eskaintzen dituzten natur parke ugariz osatutako sarea dela eta, Euskadira haurrekin hurbiltzen diren guztientzako bisitatzeko lekua bihurtu da hiria.
Hari buruzko kondaira zaharrenetako bat ezagutu nahi al duzue?

SALBURUA

**Zatoz Santa María katedrala ikustera**, kasko eta guzti! Jantzi segurtasun kaskoa eta gida profesionalek katedralaren istorioak kontatuko dizkizuete pasabide eta aldamio artean. Dorretik, Erdi Aroko Almendraren bistarik onenak gozatuko dituzu. txikienentzat egokitutako bisitaldiak ere badaude.

**Sar zaitez Almendran.** Bere forma obalatuarengatik esaten zaio horrela eta hiriko zona antzinakoena da. Han, besteak beste, **Santa María Katedrala, Harresiak, ,Bibat edo Eskoriatza-Eskibel eta Montehermoso jauregiak** aurkituko dituzu. Denda modernoenak eta betiko tabernak elkartzen diren lekua. Kaleetan beste garai bateko giroa gaurko ukituekin tartekatzen dira. Aurki itzazu ehunka urte eta hamaika istorio dituzten leku misteriotsuetatik zabiltzala.

*Erdi Aroko Almendrako kale batzuk ogibideen izenak dituzte, ba al dakizu zeintzuk?*



ERREMENTARIA, ZAPATARIA, CORRERIA, AIZTOGILE ETA PINTOREA.

*Dasta itzazu Gasteizko ehun urtetik gorako gozotegietako **goxo onenak**: txutxitoak, goxua; vasquitos y neskitas direlakoak, txokolatezko trufak... Hiriko gozogintza-tradizioa ezagutuko duzue.*



*Igozaitez "Gasteiztxo" tren turistikora. Hirian zehar txango labur bat egiten duen tren honetan primeran pasako duzue*

**Andre Maria Zuriaren plaza** XVII. Mendean sortu zen, eta hiriaren benetako erdigunea da. Erdian, 1813ko ekainaren 21ean José Bonaparte ihes zihoala babesten zuten frantziar tropen eta espainiar, britainiar eta portugaldar tropen arteko (buruzagitzat Arthur Wellesley, Wellingtoneko Dukea zutenak) Gasteizko guduari eraikitako monumentu ederra ikus dezakegu.

**Zabalgunea** denda espezializatu eta kalitate handikoak aurkituko dituzu.



AKUA GALEOIA

Eta benetako pirata bezala sentitu bahi baldin baduzu, hor duzu **Akua Pirata Galeoi parkea** Haurrek topera goza dezaten 33 metroko luzera duen jolasez betetako itsasontzia.



GASTEIZTXO

*Ba al zenekien?*



**Santa María Katedrala** inspirazio iturri izan zen hainbat idazle famaturentzat: Paulo Coelho, José Saramago edo Ken Follet, zeinak "Los Pilares de la Tierra" eta "Un Mundo sin Fin" idatzi zituen.






*Talaia gisa sortu zen honek Salburua ingurune naturala lurretik 8 metroko altueratik ikustea ahalbidetzen du.*

# Disfrutatu *naturaz* begi bistan

Oinez edo bizikletaz, nahi duen orok pasea dezake Gasteizen. Vitoria-Gasteiz biztanle bakoitzeko metro karratu berde gehien dituen Europako hirietako bat da, oinezkoentzat pentsatuta baitago. Ibilgailurik ez da behar kapitalaren barruko gune natural batetik bestera joateko. Berehala jakingo duzu zergatik den **European Green Capital 2012!**

*Ibili bizikletan uztai berdetik. Gozatu naturaz zona honetan aurkituko dituzuen 100 kilometro baino gehiagotan.*

**Uztai berdea** Gasteizen perimetro naturala da: 47 kilometroko pistak eta bideak hiria inguratzen duten parkeetatik. Flora eta fauna ugari dago hiritik kilometro gutxira.

**Salburuako hezeguneak** hiri-muinetik kilometro gutxira dauden urmael handiak dira, non oreinen taldeak eta milaka uretako hegazti ikus daitezkeen. Gertutik ikusi nahi badituzue, zoazte Atariako Interpretazio Zentrora.




Barruan, erakusketa iraunkorra dago, eta han ezagutu, ikusi eta baita ukitu ere egin ahalko dituzue. Uraren jatorria, hezeguneetan bizi diren animalia eta landareen espezieak, hegaztien migrazio-ibilbideak, nola orientatzen diren,... Gauza asko ikasiko dituzu.

> *"Hiriko ibilbideek eta bidegorriak hiri osoa zeharkatzen dute eta Uztai Berdea elkartzen dute... 100 kilometro baino gehiagoko natur ingurune ederra"*

## Ba al zenekien?

**La Florida parkearen** barruan, Parlamenturen egoitza dago, XIX. mendeko institutua izan zen eraikinean.




**La Florida parkea** mendearen hasierako ohiko hiri-parke bat da, zubiak eta ezkutalekuak, eta pilotara jokatzeko lekuek dituena. XIX. mendeko bidaiek eta espedizio handiek sortutako interesak bultzatuta, hiriak lorategi botanikoa bihurtu zuten La Florida. Xede horrekin, garai hartako agintariek Parisko 1855eko Erakusketa Unibertsalean erosi zituzten parkean egun dauden zuhaitz exotikoetatik asko. txoroleku aurkituko duzue bertan, txikientzako eraikitako gunea, non txotxongiloen ikuskizunak ikusi eta material birziklatua baliatuta txotxongiloak egiten ikasiko duten.




**La Floridatik Armentiara.** Ibilbide aparta da familientzako, Floridatik abiatu eta San Prudentzioko Basilika ederretik Senda bitartez Armentiara doana. Hango merendereroetara jende asko doa mokadutxo bat jatera edo arabar boloetara jolastera. Ibilbidea osatzeko, ibili Armentiako basoan zehar, oinez Basilikatik 10 minutura dagoena.






# *Udan*

**Ulibarri-Ganboa urtegiak** non Garaio eta Landa eta **Santa Engracia** hondartzak dauden, eguzkiaz gozatzea, bainuak hartzea eta uretako kirolak egitea ahalbidetzen dute, wind-surfa esaterako.

**AquaMendi** txirristak dituen Mendizorrozako udal igerilekuen barruan dagoen ur-parke bat da.

**Gamarrako parkean** barbakoa, igerileku handiak eta jolasteko gune berde bikainak ditu.

**Prado haur-parkea eta Amarika plazakoa**, apartak dira haurrentzako, non zabuetan ibili ahalko diren aire librean dauden terraza batean zertxobait hartzen duzuen bitartean.

*Gainera, zaldian ibiltzea gogoko baduzue, Armentiako basoak horretarako bide onena keskaintzen dizkizu.*




*Lotu **aztarna bakoitza** dagokion animaliaren izenarekin*





# Proposamen anitz Kulturalak

## Ba al zenekien?




Kas edari famatua Gasteizen asmatu zutela? 1870ean, Román Knörr Streiff alemana hirira iritsi zen eta La Esperanza garagardo fabrika sortu zuen. Horrela hasi zen dena. Hil zenean, bere semeak, Roman hau ere, AS marka komertzialarekin gaseosa fabrika bat sortu zuen. Gero, Knörr abizenaren K hizkia gehitu zion eta KAS marka sortu zuen horrela.

Gasteizek Ludwig van Beethoven berberak idatzitako sinfonia ere badu, Johann Nepomuk Märzel-ek eskatutakoa 1813ko guduaren oroigarri gisa, zeinetan Espainiar Independentziaren Gerrari amaiera eman zitzaion.









HORMA-IRUDIEN IBILBIDEA

## Koloreztatu Horma-irudia



Magiako Nazioarteko Jaialdia "Magialdia". Irailean. Haurrei zein helduei asko gustatzen zaien magia eta ilusionismo erakusketa.

Jazzaldia. Uztailean ospatzen da.

Andra Mari Zuriren festak, hiriaren erdian. Hara iristen da Zeledon abuztuaren hasieran. Jaietako protagonista San Miguel dorre puntatik zintzilikatzen da.

Nazioarteko Jolasen Jaialdia. Ekainean. Bakuna munduan bere tamainarengatik! 4.000 jolas desberdin hiri osoan zehar banatuta.



ZELEDÓN



JOKOEN JAIALDIA

Ezagutu Horma-irudien ibilbidea. Alde Zaharreko hormetan eta hutsik zeuden fatxadetan margotutako diseinu erraldoiak, artisten, arte ikasleen eta auzokide animatuen lanaren emaitza. Kolorez betetako paseoa, zeinaren bitartez hiriaren historia ezagutu eta marrazki eder horien misterioak ezagutzeko.



## Euria egin...

- **Bibat museoak** bi museo hartzen ditu: Karten museoa eta Arkeologikoa. Kartei dagozkien atalean, munduko sorta-bildumarik onena dago. Arkeologia museoa zain daukazue arabar ondare arkeologiko interesgarria azaltzeko.
- **Artium Museoak**, arte garaikidekoa, nazioarteko ospe handiko hainbat artistaren 3000 artelan baino gehiago eskaintzen ditu. Helduek Picasso, Miró, Chillida eta Oteiza artisten lanak ikusten dituzten bitartean, haurrek artearen sekretuak ezagutu eta eurenak azaleratu ahalko dituzte haurrentzako tailerretan. Familientzako bisita gidatuak daude, ez itzazue galdu.
- Hurbil zaitez **Arabako Natur Zientzien Museora**. Leku bikaina da zientzia gogoko dutenentzat. Doña Ochanda dorrean dago, Erdi Aroan hiria babesten zuen eraikinean, alegia. Bilduma geologikoak, botanikoak eta zoologikoak erakusten ditu, eta nabarmentzekoak dira probintzian aurkitutako anbar fosilen erakusketa.
- Primeran pasako duzu **Bakhko izotz-pistan**. Jantzi patinak eta arratsaldeaz gozatu pistan patinatzen.



ARTIUM

## Ez ahaztu...

- Bisita ezazu **Almendrako merkatua**. Erdi Aroko hiriguneak hileko lehenengo larunbatetan harten du inguruko 180 dendarik jartzen duten azoka, zeinak kalera ateratzen diren euren produktuak erakusteko. Merkataritza-bideaz, Artisauen txokoaz eta Kultura bideaz gain, Haurrentzako txokoa aurkitu dugu Brulleria Plazan, txikienek goza dezaten.
- **Baskoniaren partida ikustera joan Buesa Arena** pabiloian.
- **Patata tortilla-pintxo** bat jan Espainiako Plazako taberna batean. Handi naiz txiki, atzamarrak ere miazkatuko dituzue!
- Hurbil zaitez **Principal Antzokira** antzezlan bat ikustera. Igande arratsaldean bazoazte, sendi osoarentzako ikuskizuna ikusi ahalko duzue.
- Eta, Gabonetan bazatoz, hurbildu zaitez **La Florida Parkeko Jaiotza monumentala ikustera**, zeinak dagoeneko 50 urte baino gehiagoko historia duen, edo zatoz, jaietan muntatzen den, izotz-pistara patinatzera.



JAIOTZA MONUMENTALA


AÑANAKO GATZ HARANA

# Eta Gasteiz inguruan abenturak Aire librean


GORBEIA

Gozatu Añanako Gatz Haranaz, 6.500 urte baino gehiagoko historia duen gatzaren Kultura Paisaia (bizia). Modu oso atseginean, gatza nola ekoizten den eta antzina gatza ateratzeko erabiltzen ziren egiturak ezagutuko dituzue.

Gainera, toki bakun honetako fauna eta flora berezia ezagutuko duzue, eta haren bideetan zehar ibili, iturburuetako ur gazia banatzeko erabiltzen dituzten egurrezko bideetatik. Hartu parte familientzako tailer batean!

Handik gertu, eta mendian ibiltzea gogoko baduzue, onena Valderejoko natur parkera hurbiltzea da, Burgosekin mugan kokatua. Puron ibaiaren haitzarte ikusgarria ikusiko duzue, eta zerura begiratzen baduzue, Euskadiko sai arren kolonia handiena ikusi ahalko duzue zorte apur batekin. Familia-aisialdirako leku bat dago, eta baita interpretazio-gune bat ere Lalastra herrian.

Handik gertu, Santa Catalina Lorategi Botanikoa dago, agustindarren monasterio baten aztarnetan. Aire librean dagoen flora-museoa bezalakoa da, zoragarria udaberrian.


STA. CATALINA

## Gazteluak ikustera goaz!

Arabako lurralde osoa dago gazteluz eta etxe sendoz beteta. Probintzia zeharkatu ahala ikusiko dituzu.
Ospetsuak dira Mendoza, Quejana, Varonatarren dorrea edo Peñacerradako harresiak.
Gasteizko hirian, Doña Otxanda dorrea ikusi ahalko duzu, natur zientzien museo interesgarria, edo harresiaren zati bat zeharkatu ahalko duzu hiriko etxe zaharrenera iritsi arte, Andatarren dorrea edo Eskoriaza-Eskibel jauregiak, esaterako.






SOBRÓN URTEGIA

Gasteizetik 31 kilometrora Izkiko Natur Parkea dago, parkeari izena ematen dion ibaiarekin. Oinez, bizikletaz edo zaldiz zeharkatu ahalko duzu. Galdetu Korres herriko parketxean zein jarduera egin ditzakezuen.

Otoitz egiteko erabiltzen diren kobazulo eremitikoek atentzioa emango dizuete. Arrokan daude zulatuta, eta "goba" esaten zaie. Ospetsuenak Laño, Faldo edo Marquinez izenekoak dira.



Aire librean egun batez gozatzeko, joan Sobrón Abenturara. Pribilegiozko ingurune natural batez inguratuta dagoen abentura-parke bat, hegaztientzako babes bereziko zona dena. Eguna familia artean igarotzeko eta aire librean jarduera dibertigarriak egiteko leku aparta: arku-tiroa, xendazaletasuna, kanoak, eskalada, orientazioa edo zuhaitzen arteko pasarelak. Aparkalekua, kafetegia terrazarekin, kirol-pista, zona berdeak piknikerako mahaiekin, aldagelak, dutxak ur beroarekin eta udan, igerilekuak!


MENDOZAKO DORREA

## Vitoria-Gasteiz · Araba/Álava

### INFO praktikoa

**VITORIA– GASTEIZ TURISMOA**
www.vitoria-gasteiz.org

**VITORIA– GASTEIZ**
**Santa Maria katedrala**
945 122 160 · www.catedralvitoria.eus
**Gasteiztxo** (turismo-bulegoa)
945 161 598 / 945 161 599 · www.vitoria-gasteiz.org
**ATARIA** (Salburuko parkea)
945 25 47 59 · www.vitoria-gasteiz.org/ataria
**Bibat museoa**
945 203 700 · arkeologiamuseoabibat.eus/es
**Artium museoa**
945 20 90 00 · www.artium.org
**Arabako Natur Zientzien Museoa**
945 181 924 · www.alavaturismo.eus
**Bakh – Baskonia Kirol Hiria**
902 440 110 · www.bakh.es
**Principal antzokia**
945 16 12 74 · www.vitoria-gasteiz.org

**EGINO**
**SAT Olano gaztaren interpretazio-zentroa**
608 739 770

**ASPARRENA**
**Aizkorri-Aratz natura-parkeko parketxea**
945 386 964 · aizkorriaratzparkea.eus/es/turismo-familiar

**AUDIKANA**
**Lautada puzle room ihesgela**
699 544 088 · salaescapelautada.com

**ARGANDOÑA**
**Estibalizko santutegia** (Erdi Aroko Araba)
660 766 383 · alavamedieval.com

**SARRIA**
**Gorbeiako natura-parkeko parketxea**
945 430 709 · gorbeiaparkea.eus/es/que-hacer/turismo-familiar

**OLETA**
**Hontza Extrem**
633 468 947 · hontzaextrem.com

**LAUDIO**
**Santxotena museoa**
605 717 857/ 945 396 664 · www.santxotena.org

**ARTZINIEGA**
**Artziniegako Etnografia Museoa**
945 396 210 · artziniegamuseoa.eus

**LALASTRA**
**Valderejoko natura-parkeko parketxea**
945 353 146 · www.alavaturismo.eus/parques-naturales/parque-natural-de-valderejo

**PORTILLA/ZABALATE**
**Bisita gidatua Portilla/Zabalateko monumentu-multzora**
656 753 142 · Bisita gidatuak· cr-castillodeportilla.es

**SOBRON**
**Sobron Abentura**
945 359 016 · www.aventurasobron.com
**Sobrongo Ur Museoa**
945 355 089 /museoa 945 359235 · museoagua.com

**FONTECHA**
**Orgaz dorretxea**
945 359 063 / 945 359 252 · www.torrepalaciodelosorgaz.eus

**AÑANA**
**Añanako Gatz Harana**
945 351 111 · www.vallesalado.com

**KORRES**
**Izkiko natura-parkeko parketxea**
945 410 502 / 635 752 140 · izkiparkea.eus/es/inicio

**TRESPONDE**
**Santa Katalinako lorategi botanikoa**
688 89 70 48 · jardinbotanicosantacatalina.com

Familia Turismoa Euskadin klubeko enpresak dira.



Sartu Arabako Errioxan, ardoaren munduari oso lotuta dagoen eskualdea. Bertan, eskaintza kultural, gastronomiko eta naturako aisialdiko eskaintza anitza aurkituko dituzu familian bazatoz. Erdi Aroko zaldunak eta damak zarela sentituko duzue, mahastizain ogibidea nolakoa den ikusiko duzue, mahastiz betetako lur batetako flora eta fauna aurkituko duzue eta, jakin-mina duten arkeologoen bezala, magiaz eta kondairaz betetako lur honen iraganari buruz gehiago ikasiko duzue.

# Arabako Errioxa

## eleberrien eta kondairen lurraldea



LAGUARDIA



UPELTEGI BAT BISITATZEA

### Upeltegi tradizional bat bisita ezazue...

Hemen "calado" esaten zaie. Ardoaren tenperatura konstante mantentzeko lurrean egiten diren zuloak dira. txikienentzako ere esperientzia ahaztezina, zeinak gertutik ikasi ahalko duten ardoa nola egiten den eta askok haurrentzat antolatzen dituzten tailerretan eta jardueretan hartu ahalko uten parte.



Igo Racimo Tren atseginera.
Tren turistiko horri esker, mahastietatik eta upeltegietatik eman ahalko duzue paseoa. Anekdotak, tradizioak, bitxikeriak, kondairak... Arabako Errioxa ezagutzeko behar duzun guztia.

### Barnera zaitezte Bastidan eta Eltziegon, eta harresiz inguratutako Labrazan, Guardian eta Salinillas de Buradónen

Erdi Aroan sortutako herriak, kondairaz beteak, harresiekin jarraitzeko zortea izan dutenak. Gal zaitez haien kaleetan barrena, eta aurkitu haren ezkutuko txokoak bere iraganari buruz gehiago jakiteko.




Nafarroako Antso Azkarra erregeak agindu zuen gaur egun **Guardia inguratzen duen harresia** eraikitzea. Ba al dakizu zergatik deitzen zioten horrela? Bere altuera handiaren eta indarraren ondorioz. 2,22 eta 2,31 metro bitarteko altuera zuela diote. Zelabere berezi bat behar zuen eta esaten zutenez esku bakar batez gai zen bi eskuko ezpata erabiltzeko eta garai hartan besteek bi eskuz erabiltzen zituzten mazoak.



LAGUARDIAKO HARRESIA


TOLOÑO MENDILERROA

# Paisaia Bakuna Ibaiaren Ebro eta Toloñoko Mendilerroaren artean natura maite dutenentzat

Eskualdean hainbat aukera daude naturan egun polit bat igarotzeko. Hurbil zaitezte jolas-eremu ugarietako batera, non bazkaltzeko mahaiez gain, haurrentzako jolas-parkeak aurkituko dituzuen, eta baita barbakoak ere. Samaniegoko Kristoa, Bercijana Yécoran, San Justo Oionen, San Ginés, Bastidatik 2,3 km-ra edo Berberana, Guardian, dira ospetsuenetako batzuk.


MAHASTIAK

**Mahastien artean ibili.** Aprobetxatu esperientzia eder hori familian bizitzeko. Bizikletaz edo oinez, paisaia ikusgarrietara eramango zaituzteten hainbat eta hainbat bide daude. Aukera interesgarria Arabako Errioxako inguru naturala ezagutzeko. Mahastiaren atalez gain, mahastien inguruan aurki daitezkeen landareak eta animaliak hobeto identifikatu ahal izateko aukera ere izango duzue.

**Ebro piraguaz.** Ezagutu Arabako Errioxa eta hango mahastiak Ebro ibaitik. Kirola familian egiten duzun bitartean zonaldeko aberastasun naturala eta animaliena ezagutzeko aukera bikaina.

**Guardiako Biotopo Babestua.**

Arabako Errioxa erdian, urmaelen zona hau aurkituko duzue. Hara sartzeko, oinez edo bizikletaz, mahastiz inguratutako nekazal bideei jarraitu behar zaie. Urmaelen multzo honetan Prao de la Paul dago, bisitentzako egokitua, eta hegaztiak begiztatzeko zonekin.

Biotopo beti bada ere interesgarria, irailaren eta martxoaren bitartean da hegazti gehiago ikus daitekeenean.


EBRO IBAIA

> “Mahastiak, olibondoak eta urmaelak... kontrastez betetako paisaia urtaroarekin batera kolorez aldatzen doana”

**Gozatu Kantabriako Mendilerroaren eta Ebroraino iristen den bailarako ikuspegiez.**

Paisaia eder horrez gozatzeko lekurik onena Guardiako Collado parkea da. Ekialdetik harresia inguratzen du, eta Samaniegoren estatuan bukatzen da parkea.

### Zikoinak

Ezagutzen al dituzu inguru hauetan bizi diren biztanle atsegin hauek? Lepo eta hanka luzeak dituzten eta uretan bizi diren hegaztiak dira, eta munduko leku beroenetan bizi dira. Espezie migratzailea da. Negua hegoaldeko sabanetan Afrikan igarotzen dute, eta habiak Europan jartzen dituzte, kanpandorreetan edo dorre elektrikoetan, adibidez, euren habiaren pisua zuhaitzek ezin baitute jasan, eta hara itzultzen dira urtero. Ikusiko zenuen baten bat!




BIASTERIKO URMAELAK

## Ikasi ardoaren sekretuak

### Parte hartu ardoa egiteko prozesuan

mahatsa biltzen denetik zotzak kendu edo zapaltzen den arte. Gazteenek mahastizainaren ogibidea gertutik ezaguko dute eta mahatsa zapaldu eta euren mosto naturala ere egin ahalko dute!



### Gozatu ardoa dastatzen, eta txikientzako mostoa

Haurrei mahats-mordoaren eta mahatsaren atalak, formak, zaporeak eta koloreak identifikatzen lagunduko dien jarduera. Dastatu al duzu inoiz atera berri den mahats-zukua? Elikagai ugari izateaz gain eta osasuntsua izateaz gain, benetan gozoa dago!

**Ordena itzazu** marrazki hauek 1etik 6ra ardoaren ekoizpen prozesuaren arabera





# Gastronomia mundiala

## Txikientzat eta nagusientzat

Arabako Errioxak enoturismo-eskaintza erakargarria dauka, guztiontzako modukoa, gustu zorrotzenen espektatibak asebeteko dituzten proposamen gastronomikoekin.

## Ez ahaztu...

Hurbil zaitez Guardiako Plaza Nagusira, non "karriloi" estiloko erloju bat dagoen. Handik aterako dira dantzariak tokiko musika tradizionalarekin, Guardiako dantza dantzatzen. Orduak jo baino hiru edo lau minutu lehenago iristea gomendatzen dizugu, dantzari alaien irteera ikusi ahal izateko. (Erlojuaren ordutegia: 12:00, 14:00, 17:00 eta 20:00; udan 22:00etan ere bai)



**Bizi ezazu piknika mahastien artean.** Indarrak berritzeko onena saiheskiak xirmendutan erreak, hirugiharra eta txorizoa, unean bertan prestatua, ardo on batekin eta mostoarekin. Hori guztia inguruan dauden hamabi mila hektareako mahastien artean.

**Ez ahaztu Guardiako pintxoak probatzea.** Zatoz bertako produktuekin egindako pintxo eta kazolatxo ospetsuenak dastatzera. Eta, abuztuaren bukaeran bazatoz, Erdi Aroko pintxoen lehiaketa biziko duzue!

Bisitatu inguruko **olio-errota bat** lur honetako ezezagun handia. Ehun urtetik gorako olibondoak ikusi ahalko dituzue eta, laboran-tza-zikloaren arabera haiek zaindu eta tratatu ere.



OLIO-PRENTSA

> *"Zuzenean ezagutu ahalko duzu olioa nola egiten den"*



# Kultura Proposamen anitza

Eman izena inguruan egiten diren **antzerkiekin lagundutako bisitaldi** baterako. Eskualde honetako historia ezagutzeko modu dibertigarria. Ez ezazu galdu Labrazakoa. Xarmangarria eta ezezaguna, 2008an Harresiz Inguratutako Munduko Hiriaren saria irabazi zuen.



ANTZERKIAREKIN LAGUNDUTAKO BISITA

**Musika mahastien artean** (uztaila) Guztientzako kontzertuen programa zabala: jazz, blues, rock edo swing festak, eskualdeko herrietan.

Guardia eleberrizko herria da, hemen jaio baitzen XVIII mendean **Félix María de Samaniego** idazlea. Haren eleberri ospetsuenen artean daude txitxarra eta Inurria, Zakurra eta Krokodiloa, edo Azeria eta mahatsak.

### Jarri dagokion bikotea Samaniegoko Eleberriko dagokion marrazkiarekin



1. Neurriz kanpoko anbizioak ez dizu onik ekarriko, eskertu daukazuna eta jasotzen duzuna.
2. Ez ezazu dibertsioan bakarrik igaro denbora, ikasi eta lan egin ere, eta esfortzuarengatik saria jasoko duzu.
3. Sarri, gizakiok mespretxuz tratatzen dugu isilean lortu nahi bai, baina ezinezkoa dela badakiguna

1. URREZKO ARRAUtzEN OILARRA 2. txitxARRA ETA INURRIA 3. AZERIA ETA MAHATSAK

**Olioaren jaia.** (martxoa) Urtero ospatzen da olioaren festa handi hau. Zatozte gure lurraldeko janari gozo ospetsu hau nola ekoizten den ezagutzera txikienekin ere bizitzeko giro atseginean. Gainera, antzerkiekin lagundutako bisitak egiten dira inguruko errotaren bat ezagutzeko.

**Mahats bilketaren festa.** (iraila) Urtero ospatzen da jai ospetsu hau Arabako Errioxan. Lekuz aldatzen doan ekitaldi honen hasieran mahatsa zapaltzen da eta lehenengo mostoa dastatzen da. Haurrek primeran pasako dute, haientzako antolatutako programa zabalari esker.

### Zer dira elezaharrak?

Elezaharrak protagonistatzat animaliak eta fantasiazko pertsonaiak dituzten eta xedetzat ikasgai moralak modu erraz eta dibertigarrian transmititzea duten ipuin laburrak dira.



MAHATS BILKETAREN FESTA

## Ba al zenekien?

### Sorginaren txabola

Bere izena kondaira batetik dator, zeinak sorgin baten etxearekin erlazionatzen duen, zeina San Juan egunaren goizetan abesten entzuten zitzaion. Horregatik festen bezperan, Abuztuko Andra Mariren egunaren inguruan akelarre bat ospatzen da trikuharriaren inguruan Aker izeneko pertsonaia mitologiko nagusiarekin.


AKER


SORGINAREN TXABOLA

# ondarea Deskubritzeko



## Ezagutu zonako aztarna megalitikoetako bat

Arabako Bilareko Sorginaren txabola esaterako, Euskadiko garrantzitsuenetariko bat, agian handiena eta inguruan hobeen kontserbatu denetariko bat. Duela 5.000 urte inguru jaso zuten nekazaritza eta abeltzaintza praktikatzen zuten gizakiek.

Beste trikuharri ezagun batzuk dira: Layaza, El Sotillo, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos eta El Encinal.

## Zaharrenetik garaikidera

Eskualde hau zeharkatzean ohartuko zaretenez, izen handiko hainbat arkitektok egindako hainbat upeltegi daude: Gehry, Calatrava edo Aspiazu, besteak beste.

Ziur argazkiak atera eta abangoardiaz inguratu nahiko duzuela.

Dagoeneko Bilbon izan bazarete, Marqués de Riscal upeltegiak Guggenheim Museoa gogoraraziko dizue, artista berarenak baitira.


SANTA MARÍA DE MOREDA

## Katedral horietan bezala

Arabar Errioxak balio artistiko handiko erretaulak dituzte Eliza Nagusietan, non lan barrokoak, plateresko edo berpizkundeko lan bikainak ikus ditzakegun.

Ospetsuenak dira Elvillar, Guardiako Santa María, Lanciego, Oyón-Oion, Samaniego edo Labastida.

Santa María de Moredan, erretaulaz gain, hainbat margolan eta taila ikus ditzakegu haren kupulan.


MARQUÉS DE RISCAL



## Eta euria ari duenean...

- Bisitatu **Villa Lucía Ardoaren zentro tematikoa Lucia**. Modu didaktikoan ikasiko duzu ardoaren munduari buruz, eta haien koloreak, usainak eta zaporeak ezagutuko dituzu dastatze birtual baten bitartez. Baina museo honek ezusteko bat ere badu, 4D-ko zinema! Jarri betaurrekoak eta sar zaitez "En Tierra de Sueños" filmaren magian.
- Arkeologia maite dutenek **La Hoya Museoa** ikusi behar dute. Aztarnategi arkeologiko horren ezaugarriak ikasiko dituzue. Brontze Aroaren eta Burdina Aroaren bitartean biztanleak zituen herria izan zen La Hoya, eta gaur egun haren aztarnak bisitatzea lur horien eta hango jendearen iragana ezagutzeko modu egokia da.
- Interesgarria da baita ere **Remelluriko Landetxe-museoa**, Bastidan. Santa Sabina ermitako margolan interesgarriak ikusiko dituzue han, eta baita Erdi Aroko nekropolia, upeltegia eta ardoen inguruko museoa ere.

## Arabako Errioxa

INFO praktikoa

**ARABAKO ERRIOXA TURISMOA**
arabakoerrioxa.eus/es
www.rutadelvinoderiojaalavesa.com
visitriojaalavesa.com

**GUARDIA**
**Guardiako tren turistikoa**
629 830 148 · www.trenturisticolaguardia.com

**Villa Lucia ardoaren zentro tematikoa**
945 600 032 / 945 246 409 · www.villa-lucia.com

**Hoyako museoa** · 945 621 122 / 945 181 918
www.laguardia-alava.com

**Viña Real upeltegia**
941 304 809 · visitascvne.com/es

**El Fabulista upeltegia** · 945 621 192
bodegaelfabulista.com/el-fabulista-y-los-ninos

**OION**
**Valdemar upeltegia** • 945 622 188 · valdemar.es

**LABASTIDA/BASTIDA**
**Arabako Errioxa Turismoa** • 676 925 746
riojaalavesaturismo.com

**BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA**
**Amador Garcia upeltegia** • 945 290 385
bodegasamadorgarcia.com

**LAPUEBLA DE LABARCA**
**Loli Casado upeltegia** • 678 041 484

**LEZA**
**Lozano upeltegia**
945605197/ 647 982 470 · bodegas-lozano.com/vinos

Familia Turismoa Euskadin klubeko enpresak dira.


ERDI AROKO NEKROPOLIA


LA HOYA MUSEOA



SAN TELMOKO ERMITA ETA ZUMAIAKO FLYSCHA

# EUSKAL KOSTALDEA

## itsasgizon nola bihurtu bai ala bai



SAREAK PORTUAN

Muskizetik abiatuta, mendebaldean, Hondarribira, euskal kostaldeak hondartzaz, arrantzaleen herrixkaz, gastronomiaz, museoz eta baliabide turistikoez betetako 250 km baino gehiago eskaintzen dizkie familiei, urte osoan zehar gozatzeko. Itsasoa maite baduzue, Kantauri itsasoa duzue zain!



GAZTELUGATXEKO DONIENE

**Igo itzazu Gaztelugatxeko Donieneko 241 eskailera-mailak.** Hurbil zaitezte magiaz betetako leku honetan kontatzen diren tradizioak eta legendak ezagutzera. Uhartetxoak, bere landa-ermitarekin, itsas erdian dagoen gaztelu bat dirudi, eta itsas borroka eta kortsarioen istorio ugariren lekuko izan da. Ermitatik ikuspegiak ikaragarriak dira, baina ahaztezinak bihurtzen dira eguzkia sartzean.

**Zeharkatu itsasontziz Pasaiako Badia.** Goza ezazu San Pedrotik San Juanera doan itsasontzitik ikusten den badiaz eguneko arrainik onena jateko prestatzen zaren bitartean.

**Bisita ezazu arrantza-ontzi bat.** Hegaluze-ontzi bat itsasontzi-museo bihurtua. **Mater Museoa** itsasontzian, Pasai San Pedron, arrantza-tradizioari buruzko sekretuak aurkituko dituzue: ingurumena abesten duten arrantza-teknikak, arrantzaleen bizimodu bitxia, itsasontziaren berezitasunak… eta kontserba artesanalak egiten ere ikasiko duzue!

*Bihur zaitez arraunlari.* Orioko Arraunetxek bere traineru batean arraun egiteko aukera emango dizu. Senti zaitez arraunlaria eta igo Euskadiko estropada lehiaketen ontzi bitxi horretara.



**Piztu zentzumenak** eta bisita itzazu azokak produktu tipikoenak ezagutzeko. Bermeoko Handizkako Merkatuan eta Zarautzeko Udal Merkatuan euskal sukaldaritzako errezetetan erabiltzen diren produktuak aurkituko dituzue.

**XVI. mendeko baleontzia ikusiko duzu. Albaolan** San Juan baleontziaren kopia bat nola egiten duten ikusiko duzue zuzenean, eta haren historia eta itsas ondarea ezagutuko duzue "txo" izeneko pertsonaiaren eta haren lagunen bitartez. Bermeon, Aita Guria baleontzia ezagutu ahalko duzue, XVII. mendekoa, eta baita Balearen Arrantzaren Interpretazio Zentroa ere.

**Arrantzaleen herrixka xarmagarrietan barneratu.** Hondarribiko alde zaharrean harresiak eta gerraz betetako historiaren ordekari diren eraikin ugari ikusi ahalko ditugu oraindik ere. San Juanen, arrantzaleen etxetxoek Pasaiako badiaren ikuspegi ederra apaintzen dute. Getarian, Juan Sebastian Elkanoren jaioterria, parrillan prestatutako arrainen usain gozoaz gozatuko duzue kale eta Erdi Aroko jauregiak ikusten dituzuen bitartean. Bermeoko Postu Zaharra kolorez betetako etxez inguratuta dagoen zona estu bat da. Itsasontziak arrantzatzera noIa abiatzen diren ikusiko duzue herriko pintxorik gozoenak jaten dituzuen bitartean. Azkenik, Lekeition jauregiak, dorretxeak eta arrantzaleen antzinako etxeak aurkituko dituzue.

**Gozatu gure kostaldeko ikuspegirik onenez.** Mundakako Santa Catalina ermita eta Zumaiako San Telmokoa Kantauri itsasoaren ertzeko leku zoragarrietan daude kokatuta. Hurbil zaitezte itsasora begira dauden tenplu zoragarri horietako bat ikustera.

**Nabigatu kostaldetik.** Hondarribitik, Zumaiatik edo Getariatik Gipuzkoan edo Bermeotik, Getxotik edo Santurtzitik Bizkaian, hainbat ibilbide daude gure kostaldean hain ezagunak ez diren lekuak aurkitzeko. Edo izurdeak ikusteko!



### Ba al zenekien?

**Lekeitioko Garraitz uhartera** marea behean dagoenean bakarrik iris daiteke; hara joaten ziren lepra zuen gaixoak gainerako herritarrei ez kutsatzeko.

**Juan Sebastián Elkano**, Getariako semea, izan zen lurrari itzulia eman zion lehenengo itsasgizona.

3 urte behar izan zituzten!





# Kostaldea margotzen duten paisaia bakunak berdez eta urdinez

ZUMAIAKO FLYSCHA

**Plaiaundiko parke ekologikoa eta padura.** Gune natural hori, inguruan ikus daitezkeen 312 txori espezie baino gehiago ikusteko egokienetakoa, ibilbide batek baino gehiagok zeharkatzen dute. Hemen aurkitu ahalko duzue, hegaztiez gain, ur gozoko urmaelak, zelaiak, basoak, aintzirak, informazioko panelak, etxolak eta dorreak. Bere aberastasun ekologikoak naturaz gozatzeko leku aparta bihurtzen dute Plaiaundi.

**Sakonetatik paseoa.** Ibilbide honetan Deba-Zumaia arteko biotopo babestuaren zati ikusgarriena ezagutuko duzue. Itsas-labarren ertzetik eta ezkutuan dauden kalak tartekatuta, paisaia ikusgarria da benetan.

**Pagoetako natur parkea.** Zarautz eta Orio bitartean dagoen natur parke honek bere 2.800 hektarea baino gehiagotan ingurune naturalaren eta gizakiaren arteko oreka islatzen du. Baserri tipikoak, betizu behiak, pottoka zaldiak, basurdeak, erbiak... denetarik aurkitu ahalko duzu inguru zoragarri honetan.

Horrez gain, jolas-eremuei esker, zeinek mahaiak, parrillak eta iturriak dituzten, leku aparta bihurtzen da txikienekin egun dibertigarri bat igarotzeko.

**Itsas ertzeko paseoa Zarautz eta Getaria artean.** Ibilbide aparta da familiarekin egiteko. Laburra eta erraza da, eta badien paisaiak oso ederrak dira.

**Iñurritzako dunak eta biotopoa.** Natura eta kultura inguruko ondarea bilduz bat egiten dutenaren beste adibide bat. Bere 51,7 hektareatan, itsas-labarrak, padurak eta dunak aurki ditzakezue, kostaldearen aniztasunaren isla. Zonako fauna eta flora bereziaz gain, iraganean garatutako jardueraren aztarnak ere dituzte oraindik ere. Mollarriko kargahabea horren adibide ona da.

## Ba al zenekien?



Pagoetan, Agorregi burdinola zaharraz gainera, Europako lorategi botaniko garrantzitsuenetako bat aurkitu ahalko duzu. Bertako mikroklima pribilegiatuari esker, eremu hotz eta beroetako landareak izan ditzake, eta bost kontinenteetako 5.000 espezie baino gehiago dauzka.



AGORREGI





### Flyscha hurbiletik ezagutu



## Euskal Kostaldeko Geoparkea

Zumaia eta Mutriku bitartean, ingurune berezia aurki dezakegu. Geologia da paisaia paregabe horren protagonista. 13 kilometroko itsaslabarrek Flysch izeneko haitzen geruza-multzo ikusgarria dute. Haietan, Lurraren historiaren 60 milioi urte baino gehiago daude bilduta.

Oinez edo itsasontziz, meteorito handi baten talkaren isla den kolore beltzeko geruza fina aurkituko duzue hartan, eta baita dinosauroen desagerpena eta gure kostaldeak ezkutatzen dituen beste hainbat sekretu ere.

Eta orain, ba al dakizu zein argazkitan agertzen den flyscha?




### Betako artzainen moduan

Lasturren bailaran, Deban, artzain bihur zaitezkete egun batez, eta esperientzia ahaztezina bizi..





## Urdaibai, biosferaren erreserba

Oka ibaiaren iturburutik Mundakaraino, UNESCOk biosferaren erreserba izendatu zuen padura hau 1984an. Behatokietatik, padurako askotariko faunaz eta floraz goza daiteke, eta, zalantzarik gabe, hurbildu zaitezte **Urdaibai Bird Center** museo bizira, hegaztien begiztatzeaz gehiago ikasteko. Hemen zaudetenez gero, zoazte **Basondora**, animalientzako aterpetxera, Kortezubin.
Halaber, piragua bat aloka dezakezue, edo itsasontziz txangoa egin, itsasadarrean.

Interesgarria litzateke **Omako basoa** bisitatzea (aldi baterako itxita dago), natura artearekin lotuta bizitzea proposatzen baitu. Paisaia bera da mihisea, eta ehunka pinu daude kolorez estalita; hala, ibili bitartean, ikuspegiekin jolastu dezakegu. Familia osoa liluratuko duen baso animatua da.

Busturiako Madariaga dorrean, **Ekoetxeak** Euskadiko natura-ondarearen barietatea, eginkizunak eta aberastasuna erakutsiko dizkizu, biodibertsitatearen ezagutza eta balioa sustatzeko. Erakusketa-gunerako bisita amaitutakoan, behatokira joan ahalko zara, inguruko paisaia paregabeak behatzeko.

EKOETXEA (MADARIAGA DORREA)






SANTA KATALINAKO ITSASARGIA

*Zein forma du Santa Catalina itsasargiak?*

*Itsasontzia bistan!*

*Santa Catalina itsasargian, Antolin arrantzale arituarekin batera, ezagutuko duzue nola egiten zieten aurre Kantauri itsasoaren indarrari, edo tailerretan parte hartu ahalko duzue.*

# Itsasargiak

Paisaiarekin bat egin duten itsasargiak ere interes turistikoko leku apartak dira, zeinak ikustea merezi duten: La Plata itsasargia, Pasaian; Gorlizekoa, Billano lurmuturrean; Getariakoa, San Antón mendian, edo Matxitxako, Bermeotik hurbil, dira horien adibide batzuk.
Arrantza-ontziei gidatzen laguntzeko eraldatu ziren, baina hasieran zaintza-dorreak ziren. Gaur egun, horietako bakar batera bakarrik sartu ahalko gara: Santa Katalinako itsasargia, Lekeition.



GORLIZ



MATXITXAKO



*Ba al zenekien?*

Surfaren inguruan sortutako ostatuak daude, surfcamp-ak direlakoak. Bazkaria, surf eskolak, beste jarduera osagarri batzuk (skate edo surf zinema aire librean gazteentzako) eskaintzen dute.

**surfingeuskadi.eus**



# Hondartzak

## Surfa eta ur kirolak egiteko

Euskal hondartzek baldintza apartak dituzte surfa egiteko. Olatu zorrotzak, Mundakako ezkerreko olatu famatua esaterako, edo maila guztietako beste olatuak ere: Sopela, Gorliz, Bakio, Laida, Karraspio, Zumaiako Itzurun, Zarautz edo Donostiako Zurriola. Surfa egiteko hondartza ia guztietan surfa egiteko eskolak aurkituko dituzue, Surfing Euskadirekin lotuak. Zuen beharren araberako ikastaroak eta materiala eskainiko dizkizuete, produktuaren klub baten berme guztiekin.

**surfingeuskadi.eus**



ZARAUTZ



## Egun lasai bat igarotzeko

Eguna hondartzan igarotzea nahiago baduzue, lasai eta korronte eta mareengatik arriskurik gabe, Gorliz eta Lekeitioko Isuntza hondartzak dituzu; Gipuzkoan, Malkorbe eta Getariako Gaztetape, eta Hondarribiakoa edo Donostiako Kontxa.

**Zergatik ez duzue itsas jarduera bat egiten?** Surf eskolak, piraguan irteerak edo SUP taula batean, edo BIG SUP batean denok batera!, txangoa itsasontzian... Ingurune bakunetan egin ditzakezu dibertsioa eta emozioa bateratzen duten jarduerak egin ahalko dituzu, edo itsasoan barneratu kostaldea beste ikuspuntu batetik ikusteko.







*Esango al zenuke hurrengo itsas-kiroletatik zein praktika daitezkeen Euskadin?*

- SURF
- PIRAGUISMOA
- PADDLE SURF EDO SUP
- BODYBOARD
- ESTROPADAK

# Mokadutxoak Itsasotik



Euskal gastronomiaren gako bat freskotasuna eta produktuen kalitatea da, eta horren arrazoia, besteak beste, itsasoa hurbil dagoelako da. Arrantzaleen herri guztietan aurki ditzakegu antxoarik, legatzik, bisigurik onenak, hainbat modutan prestatutako plateretan. Derrigorrezko bisita da Getariakoa. Han, parrillan prestatutako arrainak dastatzeak merezi du. txipiroiak tintan ere probatu behar dituzue, eta baita arrainez edo itsaskiz betetako piperrak, edo marmitako ospetsua ere.

Plater horiekin edateko onena fruta zaporea duen ardo gazte bat da: txakolina. Aspaldi txirotzat ematen zen ardo hau gero eta gehiago edaten da "Getariako txakolina" eta "Bizkaiko txakolina" jatorri deiturekin. Lurraldeko edozein jatetxetan edo tabernetan aurki dezakezue eta, nahi izanez gero, mahatsondoak eta upeltegiak bisitatu ahalko dituzue ardo goxo hau ezagutu eta dastatzeko.

Baina ardo honen ekoizpenaren inguruan ikasteko gakoa Bakioko txakolingunea da. txikienek eurei egokitutako tailer didaktikoak egin ahalko dituzte.

Eta arrainen kontserben sekretuak ikasteko, Getariako Maisorren zein Pasaiako Mater Ontzi-museoan , kontserben artisau-teknika tradizionalak ikasiko dituzue. Materren, denboraldiaren araberako kontserba mota egingo dute, eta Maisorren Kantauri itsasoko antxoa egiten ikasiko duzue. Eta onena, etxera eraman ahalko dituzue zuek egindako kontserbak!



MADALENAK

# Hau ospatu beharra dago!!!

Hondarribiko Kutxaren Festa eta Lekeitioko Kaxarranka dantza arrantzaleen Kofradiako kideak kargua jabetzearen oroipena egiteko ospatzen da.

Zumaiako San Telmo jaietan itsasgizonen patroiaren eguna ospatzen da, eta Orioko Balearen egunean 1901ean Euskadin egin zen balearen azken arrantza ospatzen da.

Ondarroako Antxoaren eguna eta Bermeoko Arrantza Azoka , maiatzean, Santurtziko Sardinaren egunarekin batera, uztailean, aukera apartak dira gure produktuak ezagutu eta dastatzeko jai eta ospakizun giroan.

Irailean, gure lurreko produkturik onenak dastatzeko aukera izango duzue, Zumaiako Olagarroaren egunean , edo Zarautzeko txakolinaren egunean . Urrian, Zierbenako Itsaskien azoka ospatzen da.

Gainera, lau urtean behin (hurrengoa 2017an), abuztuan, Elkanoren lurreratzea ospatzen da Getarian, itsasontzi eta guzti!

Kostaldeko beste jai ospetsuenetako bat Hondarribiko Guadalupeko Ama Jaiak dira, irailean. Jai honetan, Guadalupeko Amaren Alardearen bitartez, 1639an frantziar armadaren jazarpenari garaitu zitzaiola eskertzeko Ama Birjinari egindako eskaintza betetzen da. Ez itzazue galdu jatorri militarra duen desfile bitxiak, zeinetan oraindik ere, janzkera ere oso zaindua erabiltzen duten.



LEKEITIOKO KALEKO ANTZERKIEN JAIALDIA

Aintzat hartzeko beste jai batzuk dira: Orioko, Mundakako, Zumaiako eta Pasaiako San Pedroak ekainean; Portugaleteko Guiako Ama Birjina Santurtziko, Pasaiako eta Hondarribiko Carmengo Ama, Plentziako, Mutrikuko, Bermeoko, Mundakako eta Elantxobeko Madalenak, uztailean; Zierbenako Portuko Amabirjina eta itsas prozesioa, Ondarroako Arrantzaleen eguna, abuztuan; Lekeitioko Antzararen eguna, Bermeoko Arrantzale Eguna eta Zarautzeko Euskal Jaiak irailean.

txikientzat, onena uztailean, Lekeition eta Zarautzen ospatzen diren Kaleko Antzerkien nazioarteko jaialdiak dira.

Euskal mitologia hobeto ezagutzeko, bilatu Galtxagorriak.

Zarautzen, iratxo txiki hauek bilatzeko aukera izango duzue pisten jolas dibertigarri baten bitartez.

Haiei jarraituz, Gune Historikoko monumentu nagusiak Ikusiko dituzue.



# Eta euria egiten badu... Museoak ikustera goaz!





- **Cristóbal Balenciaga Museoa**, en Getaria. Gipuzkoar kostaldean uda igarotzen zuten dama dotoreen soinekoak eta itsasgizonen alkandora zabalak izan ziren Getarian jaiotako gaztearen inspirazioa goi mailako jostun bihurtzeko. Hurbil zaitezte museo harrigarri horretara, artistak diseinatutako soinekorik onenak ikustera.
- **Nautilus interpretazio zentroa**, Mutrikun. Bidaiatu denboran, dinosauroak lurrean eta amoniteak itsasoan bizi ziren garaira arte. Interpretazio zentro hau bikaina da euskal kostaldearen historia ulertzeko eta fosilik bitxienak ezagutzeko.
- **Arrantzalearen Museoa** Bermeon. Ercillako dorre historikoan dago arrantzaleen bizitza eta lana erakusten duen museo interesgarri hau: haien ohiturak, bizimodua, familia, itsasontziak, erabiltzen zituzten teknikak… euskal arrantza-tradizioaren historia ezagutzeko.
- **Victor Hugo Museoa** Pasaian. 1843an, frantziar idazlea Pasaian bizi izan zenean bere etxea izan zenetik Victor Hugok idatzi eta grabatuak egiteko inspirazioa izan zen badiaz gozatuko dugu. "Victor Hugo, memoriara bidaia" erakusketan artistaren bizitzari buruz gehiago ikasiko duzue.



- **Agurtza arrantza-itsasontzia** Santurtzin. Gure kostaldean gelditzen diren azken arrantza tradizionaleko egurrezko itsasontzietako bat da, eta arrantzaleen bizimodua eta lana ezagutzeko bisitatu ahalko duzue.

# Ba al zenekien?

Kostaldean zehar banatutako 40 museotik gora eta ondare-gune Euskal Kostaldeko Museoen Sare osatzen dute, eta haien erabiltzaileei beherapenak eta abantailak eskaintzen dizkieten txartela eskaintzen dute.
**www.losmuseosdelacostavasca.com**

## Euskal kostaldea

### BIZKAIKO KOSTALDEA

**ARTEAGA**
**Urdaibai Bird Center** · 94 625 11 57 · www.birdcenter.org
**BERMEO**
**TopaBermeo** · 674 429 725 · topabermeo.com
**Arrantzaleen Museoa** · 946 88 11 71 · bizkaikoa.bizkaia.eus
**BUSTURIA**
**Urdaibaiko ekoetxea** · 946 870 402 · www.ekoetxea.eus
**GERNIKA-LUMO**
**Bakearen Museoa** · 946 270 213 · www.museodelapaz.org
**SOPELA**
**Geo Txiki** · 677 170 921
**ORTUELLA**
**Peñas Negraseko ekoetxea** · www.ekoetxea.eus
**ABANTO-ZIERBENA**
**La Arena Surf Center**
617 480 401 · www.laarenasurfcenter.com
**Meatzaldeako ekoetxea** · 946 501 275 · www.ekoetxea.eus
**KARRANTZA HARANA**
**Karpin Fauna** · 946 107 066 · www.karpinabentura.com
**Dolomiten Antzinako Fabrika-Museoa**
696 44 63 01 · turismo.euskadi.eus
**GORDEXOLA**
**Brt Bizkairoute consulting** · 627 658 391 · www.bizkairoute.es
**SOPUERTA**
**Sopuerta abentura** · 663 805 609 · sopuerta-abentura.com
**Enkarterrietako Museoa**
946 504 488 · www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp
**BALMASEDA**
**Alboan** · 605 757 420 · www.alboanenkarterri.com

## INFO praktikoa

**MENDEXA**
**Mendexa Abentura Park** · 688 856 283 · mendexapark.com
**LEKEITIO**
**Leaktibai** · 688 826 797 · www.leaktibai.eus/es/home
**Santa Katalinako itsasargia** · 946 844 017 · faro-lekeitio.com
**ONDARROA**
**Ondarroako turismo-bulegoa** · 946 831 951
**Koasta** · 601 632 832 · www.koasta.eus/es
**SANTURTZI**
**Santurtzi Itsas Museoa**
944 839 494 · estacionsanturtzi.wixsite.com/tusitio
**Agurtza itsasontzi-museoa** · 944 839 494
fvisitsanturtzi.eus/experiencias/barco-museo-agurtza
**GETXO**
**Ciclos Olaberrieta** (bike-rentals)
944 644 798 · www.ciclosolabarrieta.com
**Nayma-Waterbikes** · 610 255 750 · www.waterbikers.com
**Polaris nautika-eskola** 619 115 225 · polariseskola.eus
**Fangaloka** · 627 632 133
**Sukalde-eskola_Kitchen academy**
693 261 345 · kitchenacademy.es
**La Salbaje surf-eskola** · www.lasalbajesurfeskola.com
**Marmitako sailing** · 609 303 327 · marmitakosailing.com
**Bizkaiko transbordadorea** · 944 801 012 · puente-colgante.com
**Smartin Bilbao** · 600 011 463
**2 Millas** · 676 581 763 · www.2millas.com
**Hegohaize** · www.hegohaize.com
**Uluwuatu** · 722 325 828 · uluwatucamps.com
**El bote tours** · 605 014 365 · www.elbotebilbao.com
**Jose Luis bela-eskola** · 944 637 600
**Jaiki surf-eskola** · 607 761 610 · barrikasurfcamp.com
**Zen Gune Graikidea** · 652 767 022 · ezcikigai.com
**Detalleres** · 647 739 418
**La Kantera_skate-eskola** · 649 932 284 · skateskola.com

### GIPUZKOAKO KOSTALDEA

**PASAIA**
**Albaola Itsas Kultur Faktoria**
943 392 426 · www.albaola.com/es
**MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa** · 619 814 225 · mater.eus
**Victor Hugo museoa**
943 34 15 56 · www.facebook.com/victorhugopasaia
**HONDARRIBIA**
**Arma Plaza Fundazioa** · 943644623 · www.armaplaza.eus
**Navegavela** · 648183037 · www.navegavela.com
**IRUN**
**Oiasso museo erromatarra** · 943639353 · www.oiasso.com/es
**Txingudiko ekoetxea** · 943619389 · www.ekoetxea.eus
**AIA**
**Agorregi zalditokia** · 650 870 966
**MUTRIKU**
**Nautilus interpretazio geologikoko zentroa**
943 60 32 59 · www.mutriku.eus/turismo
**ORIO**
**Arraunetxe zentroa** · 679417764 · www.arraunetxe.eu
**ZARAUTZ**
**Moor surf-eskola**
943 020 894/635732013 · moorsurfeskola.com
**Good people surf-eskola**
666 177 635 · www.goodpeoplesurf.com/es
**Gela urdina ihesgela**
618 775 820 · experientziak.com/gela-urdina-escape-room
**Talaiberri txakolina**
943 132 750 · www.talaiberri.com/cas/index.php
**Essus surf-eskola**
943 835 024 · www.essussurf.com
**Shelter surf by Aritz Aranburu**
684 457 531 · shelter.surf
**GETARIA**
**Maisor antxoa-fabrika** · 943 140 993 · maisor.com
**Balenciaga museoa**
943 008 840 · www.cristobalbalenciagamuseoa.com
**Elkano ihesgela**
618 775 820 · www.elkanoescaperoom.eus/es
**ZUMAIA**
**Surfing Zumaia** · 606 574 382 · surfingzumaia.com
**Algorri interpretazio-zentroa**
943 143 100 · www.algorri.eus

Familia Turismoa Euskadin klubeko enpresak dira.


LASTUR

# EUSKAL MENDIAK ETA HARANAK

## Paisaia harrigarriak, jende atsegina



Tolosaldean eta Goierrin, Gipuzkoan, eta Gorbeiako natur parkean, Araba eta Bizkaia arteko mugan, natura bere osotasunean bizi ahalko dugu: egitasmoz betetako birika berdea familian gozatzeko, nekazal munduarekin, tradizioarekin, kulturarekin, gastronomiarekin eta kirolarekin lotutako jarduerez gozatzeko. Euskadiren kutsua ezagutu nahi izanez gero, egizue proposamen hauetako bat.

GORBEIA INGURUAN

**Ibili Goierri aldean.** Eskualde honek mendian ibiltzeko, paseoak emateko, korrika egiteko eta abarrerako ibilbide seinaleztatu ugari ditu. Hainbat maila dituzte seinaleztatuta. Ez ezazue pasatzen utzi naturarekin harremanetan jartzeko eta egun zoragarria familian pasatzeko aukera.

Paseo polita da Arriaran pantanoa inguratzen duena edo istorio eta kondaira ugariko Segurako Erdi Aroko herriari itzulia ematen diona.

**Gorbeian familian ibiltzeko bideak:** Babestutako gune honetako paraje ederrak ezagutzeko eta hango flora eta fauna ikusteko 14 bidez osatutako sarea dago. Giza historiaren “aztarnak” ere ikus ditzakegu han, trikuharriak, menhirrak, saroiak, ikastegiak, errotak eta ezkutuan dauden etxolak, esaterako.

**Igo Gorbeiako Gurutzera.** Itsas mailatik 1482 metrora, urtero mendian ibiltzen diren milaka zale hartzen dituen 18 metroko gurutze erraldoi bat dago Gorbeiako gailurrean.

**Egin uretako kirolen bat Arabako Zadorra ibaiaren urtegietako batean.** Urrunagako urtegian arraunketa, wind-surfa, bela arina eta kirol-arrantza praktika daitezke, eta bi aisialdi-gune ditu urtegiaren ertzean: Sorgimendi aisialdi-guneak mahaiak, iturriak, hondartza eta zuhaitzak ditu; Zabalainen zuhaitzak, mahaiak eta barbakoak. Albina bikaina da piraguismoa egiteko. Ulibarri-Gamboa aparta da kayaka, uretako eskia eta bela egiteko. Haren ertzetan, Gasteizko Klub Nautikoa dago, eta Landan bainatzeko prestatuta dagoen jolas-eremua ere badago. Urtegi osoa inguratzen duen bide berdea ere egin dezakezue oinez edo bizikletaz.


ULLIBARRI-GAMBOA

**Gaztagintza-etxe batera bisita.** Euskadiren barnealde osoan zehar, asko dira bisita ditzakezun gazta egiten duten etxeak. Batera hurbiltzea da Idiazabalgo gazta ospetsua ezagutzeko onena. Bertan, artzain batek latxa arrazako ardiei, larratzeari, gaztagintzari, jatorri-deiturari eta beste gauza askori buruzko gauza asko ikasiko dituzue. Eta, nola ez, bisita bukatzeko, dastatu Idiazabalgo gazta. A ze gozoa!


GAZTAGINTZA

### Meatzaria egun batez Burdinazko mendian.



Bisita ezazu Aizpea meatze-konplexua, Zerainen, eta ezagutu haren galeriak eta antzinako kiskaltze-labeak: ingelesaren etxea, bolborategia, mekanikariaren etxea eta kiskaltze-labeak bezalako elementuek eratzen dute paisaia interesgarri hau.

Meatzearen lehenengo erreferentziak XII. mendekoak dira, eta XX. mendera arte luzatu ziren, 1951ean itxi baitituen ateak. Zeraineko kartzela ere bisita daiteke, eta euskal boloetara jokatu.

### Ba al zenekien?

Egia al da Euskadik bere txerri-arraza duela?
Bidanian, “Euskaltxerri” txerri-granja ezagutu dezakezu, Euskadiko txerri-arraza. Hemen ikusiko duzue nola hazten diren txerriak “pozik”, bakean, eta, ondoren, ustiapen honetan ekoizten diren urdaiak dastatuko dituzue.





# Egun atsegina *familian*

GUJULIREN UR-JAUZIA

**Hartu atsedena eta egun atsegina igaro Gorbeia mendiaren maldan.** Kirola egiteko, atseden hartzeko eta aisialdirako egokitutako leku ugari dago. Izarran, Ostuñoko parkean futbol eta tenis eremuak aurki ditzakegu; Gopegin, Bengolarrak frontoia eta igerilekuak ditu; Zuian, Jujatxi ermita; Aramaion Mariseka eta Andramari; Artean Santa Maña, Santiago eta Bikotzgane; Lemoan Lemoatxa eta San Antolin; Orozko Belaustegin, Agarre, Urigoiti, Ibarra, Katadio, Santa Marina, Altzagorta eta Elezkin; Otxandion Presazelaia; Ubiden Olalde; Ugaon behatokia; Zeanurin Saldropo eta San Justo, eta Areatzan; Pagomakurre, Larreder, Asteitze, eta Upo Makatza.

**Abentura familian Hontzaextremen.** Abentura zuhaitzen gainean, non trebezia, gaitasuna eta abentura behar diren (zubi tibetarrak, tirolinak, lianak, kulunkatzen diren zurtoinak, sare-zubiak, nepaldarrak, tximinoenak...). Nagusientzat, 'arko-tiroa'. Erakutsi esteei zer nolako punteria duzun. Eta, bukatzeko, 'zuhaitzen eskalada', zuhaitzetara segurtasun osoz igotzeko. (4 urtetik gorakoentzat)

**Hurbil zaitezte Gujuli ur-jauzira.** 100 metro baino gehiagoko jauzia du eta Gorbeia inguruko paisaia-elementu garrantzitsuenetako bat da. Behatokira hurbildu naturaren ikuskizun hau ikustera. Horrez gain, seinaleztatutako bide ugari ditu (guztientzako egokiak) pagadien, txilardien, larreen eta milaka urte dituzten haginen artetik.

**Orientazio-jokoa.** Mutiloa-Ormaiztegi bide berdean, familientzako orientazio-joko bat dago. Orientazio-kirola eta mendian ibiltzea elkartu dira zuen gozamenerako. Hartu mapa eskuan eta ibilbidean zehar aurkituko dituzuen balizetako galderei erantzun beharko diezue. Naturari, ingurumenari eta meatzaritzari buruzko galderak izango dira, gozatzen duzuen bitartean ikasten ere joateko. Mapa eta informazioa Ormaiztegiko turismo bulegoan har daiteke.

**Bizi abentura familian txindoki mendiaren maldan.** Segurtasuna banderatzat hartuta, txindokiko Itzalak bizimodu aktiboa probatzeko eta esperientzia aberasgarriak bizitzeko aukera eman nahi dizu.



## Ba al zenekien?

Ba al zenekien? Udan, mendietako kortak betetzen dituzte ardi latxen taldeekin, inguruko gaztak egiten dituzte. Neguan, aldiz, bailarako zelaietara jaisten dira eta han geratzen dira mendiko larreetan belarra hazten den arte.



## Artzaina egun batez.

*Ezagutu gure ogibide tradizional garrantzitsueneko bat. Ardiak zuzentzeko esperientzia eta mendiko eguneroko bizitza bizi eta ikasi larratzeari buruz jakin behar den guztia ikasi.*



**Piknika egin familian.** Gorbeiako natur parke osoan Aurkituko dituzue familiarekin lasai egoteko eta naturan piknika egiteko lekuak, kayak baten gainean ere!

**Drukuren mundua bisitatu.** Zuian dagoen granja-eskola honetan, harreman zuzena izango dute animaliek eta bisitariek. Border-collie txakurrak ardiak zuzentzen, bisitariak orraztuko dituen belatza, zaldiei janaria eman ahalko diezue...Naturarekin harreman zuzeneko esperientzia.

**Artisauen lana zuzenean ezagutu.** Harria, zura, zeramika... artisautza ogibidea izan da Gorbeia inguruko jende askorentzat. Gure artisauak eta haien lanabesak hobeto ezagutu edo zuen eskuekin zeuen lanak egin nahi badituzue, inguruan egin ahal dituen tailer batean parte hartu.



## Gehiago ikasi sendabelarrei buruz.

*Sendabelarren erabilera betidanik egon da oso lotua euskal tradizioei eta kulturari. Gorbeian, sendabelarrak ezagutuko dituzue eta haien erabilera eta ezaugarrien buruz, eta euskal medikuntza tradizionalari buruz gehiago ikasiko duzue.*






## Ba al dakizu animalia honen euskal arrazaren izena?

- A
- B
- C

A. LATXA ARDIA B. POTTOKA C. EUSKAL TXERRI

## Bi gurpilak maite dituztenentzat

**Durango abiapuntu.** Mendiko bizikleta gustuko baduzu, ibilbide ugari daude, oinez edo Btt bizikletaz Durangotik abiatuta. Zoazte Durangora, Erdi Aroan sortu zen herria, non familian bisita gidatua egin eta txikienentzat haurren parke ugariez gain, hainbat baliabide ere dauden.

**Bizi natura bizikletaz Gorbeian.** Natur parke osotik daude bizikletaz egiteko seinaleztatutako bideak. Bizikletak hainbat lekutan alokatu ahalko dituzue: Murgiako Ugazabaren Etxea, Orozkoko Museo Etnografikoa edo Otxandioko Bizigunea, esaterako.

**Bide berdeak** Antzina trenbideak ziren eta erabiltzen ez zirelako oinez edo bizikletaz ibiltzeko bihurtu diren bideak dira. Halako bideen sare zabala dago. Zure planen arabera aukeratu bitxikeriaz beteta dauden leku berezietatik doazenak.



**Tolosaldea bizikletaz.** Tolosatik abiatuta, Btt zentroaren bitartez, maila guztietako ibilbideak eskaintzen ditu Tolosaldea eskualdeak. Familian gozatzeko egokienak Leaburu ingurukoak dira, non kirola egiteaz gain, paisaia harrigarrienak ezagutu eta naturarekin harremanetan jarriko zareten. Gainera, ibilbideetan zehar, jolas-eremuak aurkituko dituzu, non atseden hartu eta mokadutxo bat jan.

# Parkeak Natura




URKIOLA



## Urkiola

Urkiolagirre mendia oasi berdea da Durangaldeko kareharrizko mendi-puntek eskaintzen duten profil zorrotzean. Profil atsegin horrek eta Urkiolako Santutegitik hurbil egoteak, eta gorago dauden gailurren ikuspegiak leku aparta bihurtzen dute txikienak mendian ibiltzen hasteko. Urkiolako Natur Parkeak oso paisaia ederra eskaintzen digu. Zailtasun maila desberdinetako bideetan ibili edo eman paseoa bizikletan familiarekin haiek ezagutzeko.

Egin bisita Toki Alai Interpretazio-zentrora: Parkearen inguruko erakusketa baten bidez, paisaiari buruzko xehetasun gehiago ezagutuko dituzue. Horrez gain, ikus-entzunezko bat ikusi eta zaien kolonia bat zuzenean ikusi ahalko dugu bideo-kamera bati esker.

## Aralar

Euskal mitologiaren kondaira askoren sorlekua da. Natur parke hau bikaina da egun bat naturan igarotzeko. Paseoan zehar, monumentu megalitikoak eta bertako fauna ikusiko dituzue seguruen. Horrez gain, Lizarrustiko interpretazio-zentroak bisita gidatuak eskaintzen ditu parkea eta mitologia ezagutzeko, eta baita antzerkiak ere udan.

## Gorbeia

Gorbeiako antzinako artzainen etxolen bezala, parkeko abegi-etxolak txikientzako hainbat jarduera ditu: panel interaktiboak, holografiak, landareen usaina usaintzeko tramankuluak, eta baita oreinen orroak entzutekoak ere, besteak beste.

txikienek inguruko paisaia eta tradizioak hobe ezagutzeko hainbat proposamen erakargarriz osaturiko programa zabala du: erakusketak, tailerrak, txangoak eta hitzaldiak... 2 dira interpretazio-zentroak: Areatzakoa, Bizkaitik eta Sarria Arabatik bazoazte.

## Aizkorri-Aratz

Gipuzkoako ibairik garrantzitsuenen sorlekua, Euskadiko beste Natur Parke garrantzitsuenetako bat da. Monumentu megalitikoak, lurrazpiko galeriak, Arantzazuko Santutegia... inguruan ezagutzea merezi duen ondarearen adibidez dago beteta. Hurbil zaitezkete Aizkorrira, naturaz gozatu eta egun aparta igarotzera. UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatutako San Adrianeko tunela zeharkatu, zubi honek Erdi Aroan Gaztela eta Europa elkartzen baitzituen.





# Lo egin Natura

**Gorbeiako Natur Parkean** badago naturan lo egiteko proposamen dibertigarri bat, ostatu original eta bakunetan. Ikus bi eskaintzak:

**Zuhaitz-etxeak** Zeanurin, zuhaitzen artean lo egiteko aukera ematen dute, naturarekin bat eginda, txoritxo baten moduan!

Ez ezazu ahaztu argazki-kamera, baliteke txoriak ikustea, edo orkatzak ikustea etxetxoen azpitik pasatzen.

Eta txikienentzat, aukera onena kolorez betetako **ijitoen orgak** dira. Konplexuan kafetegia eta taberna daude, afarien erreserba egin daiteke, eta txangoetan piknika egiteko aukera dago. Baserriak Wi-Fi sarea du.






**Ordiziako Euskal Jaiak** Irailaren lehenengo astean ospatzen dira duela urte mordoa. Merkatuko azoka berezia nabarmendu beharra dago. Haren ondoren Idiazabalgo gazta onenaren lehiaketa burutzen da eta irabazleak 13.000 eurora arte iristen da ondorengo enkantean. Kaleak kolorez betetzen dira euskal jantzi tradizionalez jantzitako jendearekin.

## Gorbeiako festak eta azokak-

Nekazaritza, artisautza eta gastronomia dira protagonistak, eta agerian geratzen da hori festa eta azoketan. Maiatzean San Isidro ospatzen da Zeanurin eta, hileko bigarren larunbatean, Gorbeiako Natur Parkeko Abere Azoka. Uztailan, Orozkoko Produktuen egunean eta hileko azken igandean, Zigoitiako Zaldiaren Azoka ospatzen da Ondategin.

Iraileko hirugarren larunbatean derrigorrez bildu beharra dago Arteara, Mekartea azoka interesgarria. Urriko lehenengo igandean Abereen Azoka ospatzen da Murgian; hileko azken larunbatean, Aramaioko Ibarrako Artisau-produktuen Azokara joan zaitezkete, eta igandean, aldiz, Izarrako Urkabustaitz Azokara. Bukatzeko, abenduan, Santa Luzia Azoka ospatzen da bai Otxandion bai Orozkon.

## Tolosako Abesbatza Lehiaketa

1968az geroztik ospatzen da. Abesbatzak gogoko badituzu, zuretzat proposa da. Europar hainbat herrialdetako abesbatzek hartzen dute parte lehiaketa honetan.

**Tolosako Inauteriak.** Ezin duzue galdu! Herria bertakoez eta kanpotarrez betetzen duen jai bitxia eta berezia da. Herri osoan bizi daiteke giro ezin hobea. Desfileak, konpartsak, danborradak, zezenak... Haurren zein nagusien gustuko jaia da.

**Euskadi kondairaz eta mitologiaz betetako lurra da.** Marik sugarrak botatzen dituela entzungo duzue. Lamiak, ahateen moduko oinak dituztenak oso ederrak direla. Basoetako jauna den Basajaunari buruz eta naturaz gaindiko botereak dituzten sorginei buruz ere entzungo dituzu istorioak.

Gai al zara bi pertsonaia hauen izena emateko?



L _ M _ _ K
B _ S _ J _ _ N



# Euria egin...

- **Topic txontxongiloen nazioarteko museoa, Tolosan.** Europan txotxongiloen arteari eskainitako zentro integral bakarra. Mundu osotik ekarritako txotxongiloak bildu ditu. Helburuetako bat gazteenak antzerkiaren mundura hurbiltzea da, beraz, aukera aparta da euria egiten duenerako.
- **Arteako Euskal Baserria Ekomuseoa.** Museo etnografiko honetan XVIII. eta XIX. mendeetako euskal baserrien bizimodua eta ohiturak ezagutuko dituzue. Lanabesak, jantziak, trajeak eta objektuak, denak leku berean, gure lurraren sustraiak ongi ezagutzeko eta euskal baserrietan antzina nola bizi ziren ikusteko.



- **Euskal Eltzegintza Tradizionalaren Museoa** Olleriasen, **Elosu.** 1711Ko lapikogintzako tailer honetan zeramikako objektuen bilduma handia ikusiko duzue. Horrez gain, mendeetan zehar milaka pieza egosteko erabili den labe erraldoia ere bisitatuko duzue. Ekoizpen-tailerra bisitatu dezakezue eta eltzeak nola egiten dituzten ikusi
- **Orozkoko Museo Etnografikoa.** Proposamen interaktiboen eta parte-hartzaileen bitartez, Orozkoko eremuaren, abeltzaintzaren eta Gorbeiako Natur Parkearen inguruko bisita ludiko eta ikastekoaz gozatuko duzu.

# Esperientzia gastronomikoak goxo-goxoak!!!



**Murgiako Eztiaren Museoa.** Oregi Etxean dago, eta erlezaintzaren mundu zoragarrian barneratzeko pentsatuta dagoen zentro bat da. Erlauntzak maneiatzeko eta eztia zein haren eratorriak prestatzeko erabiltzen ziren tresnak eta elementuak erakusten dira bertan. Erleen eta eztiaren mundua menderatzeko guztia, ze gozoa!

### "Erlezain egun batez"

*Barnera zaitez erlezaintzaren mundu zoragarrian, mila urtetik gora dituen ogibide eta praktika, zeina Gorbeian oraindik ere bizi-bizirik dagoen. Lasai dastatu ezti natural eta suabe hau.*



Ikasi elikadura osasuntsuari buruz gehiago. Ordiziako D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomiako Zentroan horri buruz, Goierriko historiari eta Ordiziari buruz gehiago ikasi ahalko duzu eta baita hango azokari, Idiazabal gaztari eta elikadura osasuntsuari buruz ere. Gainera, zentro honek haurrei zuzendutako hainbat jarduera eskaintzen ditu, gozatu ahala ikas dezaten.



*Ebaki gazta goxo hori 12 zati berdinetan ebaki zuzenak bakarrik eginez... Anoa goxo-goxoa duzu zain!*




**Ordiziako Azoka.** Asteazken guztietan ospatzen da Ordizian Euskadiko merkaturik garrantzitsuena. XII. Mendean hasi bazen ere ospatzen, 1512an Gaztelako Joana "Eroak" eman zion bultzadari esker jarraitu da gaur egun arte ospatzen. Hemen aurkituko dituzue lurreko produkturik freskoenak, baserritik ekarritakoak zuzenean. Sar zaitez merkatuan eta probatu eskualdeko berdurak, gaztak, hestebeteak eta frutak.

**Tolosako azoka.** Probintziako garrantzitsuenetako bat, larunbatero ospatzen da duela hainbat mende. Barazkiak, frutak, loreak, ehunak, etab. Gure lurraldeko produktu garrantzitsu ugari. Aurkitu zaporeak, usainak... eta, zalantzarik izanez gero, galdetu beldurrik gabe baserritarrei.

### Ogia egiteko tailerra

*Gorbeian, obradoreen tradizioak eta haien sekretuak ezagutu ahalko dituzu euren lana maite duten profesionalen eskutik. Sar zaitez Gorbeiako okindegien eta gozogintzaren munduan Bizkarra sendiaren eskutik.*



*Igartzako multzo monumentaleko errotan, Beasainen, ogia modu tradizionalean egiten ikas daiteke. Jarduera aproposa familian egiteko, eta zuk zeuk egindako produktua dastatu ahalko duzu!*

**Idiazabalgo gazta.** Goierriko produkturik ezagunetako bat, zalantzarik gabe, Latxa eta Karrantza ardien eskearekin bakarrik egiten den gazta bikain hau probatu beharra dago. Ketua edo ketu gabea, bere jatorri deitura duen gazta hau probintziako azoka eta denda guztietan aurki daiteke.




Eta gazta honen inguruan gehiago ezagutu nahi baldin baduzue, izena ematen dion herrian, Idiazabal, Gaztaren Interpretazio-zentroa dago; Izal saguak ikus-entzunezko baten bitartez azalduko dizue horrenbeste sari dituen gazta honen historia. Gazta dastaketak ere egin ahalko dituzue.



**Tolosako babarrunak.** Gipuzkoako probintziako beste produktu izar bat da, Ibarrako piperrarekin batera. Babarrunaren zikloa ezagutu ahalko duzue landatzen denetik urdailera iristen denera arte. Euskal Gastronomian hain ohikoa den lekale honen ekoizle baten eskutik, Urkizu mendian ibili ahalko zarete, eremuraino, hainbat egunetan babarrunak landatu, bildu eta merkatura irten aurretik nola prestatzen diren ikusteko. Jakina, esperientziaren bukaeran babarrun jana egingo da Babarrunaren astean (Azaroa)





**Gorrotxategi Museoa.** Gozogintzaren eta kandelategiaren historia ezagutzeko museo egokia. Antzinako gozogileek kafea, txokolatea, karamelua eta abar egiteko erabiltzen zituzten teknikak erakutsiko dizkizuete eta egun goxo-goxoa igaroko duzue.

Eta Tolosan zaudetenez, Teilak eta zigarroak probatu. Ia ehun urte dituen Eceiza Gozotegiak (gurina eta almendrarekin) sortutako goxo hauek, udalerriko postre nagusia dira.

Familia Turismoa Euskadin klubeko enpresak dira.

## Euskal Mendiak eta Haranak

INFO praktikoa

### EUSKAL MENDI ETA BAILARAK TURISMOA
turismo.euskadi.eus/montesyvalles

### ARABA-ÁLAVA

**ZUIA**
**El Mundo de Druku**
607 83 23 30 · www.gorbeiaeuskadi.com

**MURGIA**
**Eztiaren Museoa** · 945 430 167 · www.cuadrillazuia.com

**OLLERIETA.**
**Euskal Buztingintza Museoa**
945 455145 · www.euskalzeramika.com

### BIZKAIA

**ABADIÑO**
**Alluitz Natura** · alluitznatura.com · 688 875 120

**ARTEA**
**Euskal Baserriaren Museoa**
946 317 086 · euskalbaserria.com

**ELORRIO**
**Belaze** · 611 18 82 13 · https://linktr.ee/belaze

**MAÑARIA**
**Hontza museoa** · 946 21 65 55 https://hontzamuseoa.eus/

**OROZKO**
**Orozkoko etnografia-museoa**
946 122 695 ·www.orozkomuseoa.eus

**OTXANDIO**
**Hontzaextrem** · 633 468 947 · www.hontzaextrem.com
**Axpe Ebike** · 625 702 019 · axpeebike.com

**MUNGIA**
**Izenaduba basoa** · 946 740 061· www.izenaduba.com

**GÜEÑES**
**Bizkaia Park Abentura** · www.bizkaiaparkabentura.com

### GIPUZKOA

**LEINTZ-GATZAGA**
**Leintz-Gatzagako Gatz Museoa** · 943 714792 · www.gatzmuseoa.com

**OÑATI**
**Arantzazuko parketxea** · 943 782994 · www.arantzazuaterpetxea.com
**Arrikrutz Oñatiko kobazuloak**
943 08 20 00 / 943 78 34 53
www.xn--oatiturismo-1db.eus/es/listings/arrikrutz-onatiko-kobak
**Debagoienako turismo-bulegoa eta interpretazio-zentroa**
943 71 89 11 · Debagoiena Turismoa | Lurra, nortasuna eta geroa
**Txokolateixia txokolatearen interpretazio-zentroa** · 605 76 35 95
www.xn--oatiturismo-1db.eus/es/listings/txokolateixia-interpretazio-gunea

**OIARTZUN**
**Soinuenea musika herrikoiaren zentroa**
943 493 578 · www.soinuenea.eus/eu
**Arditurriko meategiak** · 943 495 069 · www.arditurri.com

**AZPEITIA**
**Azpeitiko ekoetxea** · 943 81 24 48 · www.ingurugiroetxea.org
**Trenaren Euskal Museoa** · 943 15 06 77 · museoa.euskotren.eus

**ZESTOA**
**Ekainberriko kobazuloak** · 943 86 88 11 · www.ekainberri.eus/

**DEBA (ITZIAR)**
**Gailur ekitazio- eta aisialdi-eskola**
649 846 727 · www.gailurzaldiketa.com

**HERNANI**
**Txillida Leku**
943 335 963 · www.museochillidaleku.com/educacion/familias-y-adultos

**ASTIGARRAGA**
**Sagardoetxea euskal sagardoaren museoa**
943 550 575 · sagardoarenlurraldea.eus

**ANDOAIN**
**Leitzarango bisitarien zentroa**
943 300 929 · www.leitzaran-andoain.eus

**BEASAIN**
**Igartza monumentu-multzoa** · 605 77 18 81 · www.igartza.eus/es/visitas

**ZERAIN**
**Zeraingo etnografia-museoa** · 943 80 15 05 / 649 946 277
www.zerain.eus/es/zerbitzuak/la-montana-de-hierro
**Aizpeako meategiak** · 943 80 15 05 / 649 946 277
www.zerain.eus/es/zerbitzuak/museo-etnografico

**ORIDIZIA**
**D´elikatuz** · 943 88 22 90 · www.delikatuz.com

**IDIAZABAL**
**Idiazabal gaztaren interpretazio-zentroa**
943 18 82 03 · www.idiazabalturismo.com

**ORMAIZTEGI**
**Zumalakarregi museoa**
943 88 99 00 · www.zumalakarregimuseoa.eus/es

**ALKIZA**
**Fagus Alkiza** · 943 69 02 35 · fagus-alkiza.eus

**ABALTZIZKETA**
**Txindokiko itzala** · 943 654 757 · www.txindokikoitzala.com/es

**TOLOSA**
**Rafa Gorrotxategi txokolatearen museoa** · 943 890306
**Topic - Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa**
943650414 · www.topictolosa.com
**Tolosaldeako turismo-bulegoa** · 943 69 74 13

**EZKIO-ITSASO**
**Igartubeiti baserri-museoa**
650 87 09 66 · www.igartubeitibaserria.eus/es

**LEGAZPI**
**1950eko eskola** · 943730428 · lenbur.com/es
**Euskal Burdinaren Museoa** · 943730428 · lenbur.com/es
**Igeralde ogiaren txokoa** · 943730428 · https://www.e-lenbur.com




QR kodearekin deskargatu dezakezuen mapa honetan, Familia Turismoa Euskadin klubeko 230 enpresa aurkituko dituzue, zeinek haurrak dauzkaten familiei egokitutako zerbitzuak eskaintzen baitituzte, kalitate- eta segurtasun-betekizunak betez.

Turismo-bulegoak

Haurrekin egiteko planak

Ekoturismoa

Osasun-zentroak

Euskadiko hondartzak

Surfing Euskadi

Euskadi Gastronomika

## HOTELAK

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

**Zinema7** · 943 445 000 · www.zinema7hotel.com
**Irenaz** · 943 308 149 · irenazsansebastian.com
**Sansebay** · 943 435 724 ·sansebayhotel.com
**NH Aranzazu** · 943 219 077 · www.nh-hoteles.es
**Silken Amara Plaza** · 943 464 600 www.hoteles-silken.com/es
**Barceló Costa Vasca** · 943 317 950 · www.barcelo.com/es

**HONDARRIBIA**

**Jauregui** · 943 641 400 sercotelhoteles.com/hotel-jauregui/habitaciones
**Rio Bidasoa** · 943 645 408 ·hotelriobidasoa.com/es

**IRUN**

**Atalaia** · 943 629 433 · www.hotelatalaia.com
**ETH Irún** · 638 837 182 · www.hoteleth.com

**OIARTZUN**

**B&B Donostia San Sebastián Aeropuerto** · 943 912 451 www.hotel-bb.com/es

**AZPEITIA**

**Larrañaga** · 943 811 180 · www.hotellarranaga.com/es

**ASTIGARRAGA**

**Sagarlore** · 843 931 000 · sagarlore.eus/es

**TOLOSA**

**BideBide Tolosa** · 943 231 111 · hotelbidebide.eus

**GETARIA**

**Katrapona** · 943 140 409 · katrapona.com

**GETARIA**

**San Prudentzio** · 943 140 411 · www.hotelsanprudentzio.com

**ZUMAIA**

**Flysch** · 943 245 870 / 696 953 191 · www.hotelflysch.com

**VITORIA-GASTEIZ**

**Zenit Jardines de Uleta** · 945 133 131 · jardinesdeuleta.zenithoteles.com/es
**NH Canciller Ayala Vitoria** · 945 130 000 www.nh-hoteles.es/hotel/nh-canciller-ayala-vitoria
**Centro Vitoria** · 621 248 128

**QUEJANA ( AYALA-AIARA)**

**Arcos de Quejana.** · 945 399 320 · www.arcosdequejana.com

**LAGUARDIA**

**Silken Villa de Laguardia** · 945 600 560 www.hotelvilladelaguardia.com

**BILBAO**

**Casual Gurea** · 944 16 32 99 · casualhoteles.com/hoteles-bilbao/casual-gurea

**GETXO** **Artaza** · 944 912 852 · www.hotelartaza.com
**OROZKO** **Osabarena** · 946 941 146 https://www.osabarenahotela.com/

**ETXEBARRIA**

**Antsotegi**· 946 169 100 https://www.osabarenahotela.com/

## LANDETXEAK

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

**Maddiola** · 652 703 128 · www.agroturismomaddiola.com

**HONDARRIBIA**

**Artizarra** · 655 721 834 · www.casaruralartizarra.es

**ZARAUTZ**

**Itulazabal** · 943 133 053 / 619 971 712 www.itulazabal.com/web

**ZESTOA**

**Aranburu** · 676 908 517/943 148 005 casaruralaranburu.com

**MUTRIKU** **Pikua** · 943 603 242 · www.pikua.es

**DEBA**

**Arriola Txiki** · 606 522 147 · www.arriolatxiki.es
**Zubeltzu Torre** · 637 905 164 www.zubeltzutorre.es

**URNIETA** **Enbutegi** · 628 523 922 · enbutegi.net

**SEGURA**

**Ondarre** · 943 801 664 www.escapadarural.com/casa-rural/guipuzcoa/ondarre-baserria

**ASTEASU**

**Saskarate** · 679 808 373 · www.nekatur.net/saskarate
**Lizolagoiena** · 688 683 262

**ALKIZA** **Lete** 943 691 264 / 671 071 514 · letealkiza.com
**GETARIA** **Epotx Etxea** · 943 140 389 / 637 738 295 www.epotx-etxea.com
**OREXA** **Orexa enea** · 943 682 290

**OTOGOIEN ( VITORIA-GASTEIZ)**

**La Granja de Vitoria** · 637 765 348 / 649 470 473 casaruralloshuetos.es

**LUQUIANO (ZUIA)**

**Casa Lafuente** · 945 203707 · www.casalafuente.com

**MANURGA(ZIGOITIA)** **Haizatu** · 675843230 · haizatu.com
**LLANTENO** **Satiaberri** · 688 744 579
**PORTILLA/ZABALATE (ZAMBRANA)** **Castillo de Portilla** · 656 753 142 · www.cr-castillodeportilla.es
**SOBRON ( LANTARÓN)** **Natura Sobrón** 676 260 250 / 609 900 403 · www.naturasobron.com
**IBARGUREN ( ASPARRENA)** **Legaire etxea** 607 547 916 · www.legaireetxea.com
**NARBAIZA (SAN MILLÁN–DONEMILIAGA)** **Lecea y Alianzas** · 696 282 571 · www.casarurallecea.es
**EA** **Las casas de Ea Astei** · 619 560 123 · astei.com
**ZEANURI** **Cabañas en los Arboles** · 692 738 920 cabanasenlosarboles.com/es/activitats
**MUNGIA** **Txokoetxe** · 615 799 607 · www.txokoetxe.com
**DURANGO** **Eguzki B&B** · 944 656 075 www.eguzkibandb.com/es

**VALLE DE CARRANZA**

**Mendi Alai** 678 787 256 · mendialai.net

**SOPUERTA**

**Pikatzaenea Baserria** · 617 471 936 · www.pikatzaenea.com/es
**Bizkar-Bare** · 659 033 612 · www.bizkar-bare.com

**GIZABURUAGA**

**Akuiola** 699 567 626 · www.akuiola.com

**ISPASTER**

**Belaustegi** · 628 747 895 / 635 710 026 belaustegi.eus

## APARTAMENTU TURISTIKOAK

**ZARAUTZ**

**Kaixo family** · 607 836 663 · www.kaixoat.com
**Egona** · 679 080 946
**Itxaropena** · www.egona.net
**Dada** · 679 080 946 www. apartamentosdada.com
**Salbide** · 679 080 946 · www.salbideapartamentoszarautz.com
**Good duke** · 679 080 946 www.goodduke.com
**Talaimendi** · 943 130 002 · www.talaimendi.com

**ZUMAIA**

**Telmo's Home** · 622 106 459 · telmos-home-apartment

## ATERPETXEAK

**BEIZAMA**

**Beizama** · 630 181 994 · www.beizamakoaterpetxea.com

**VITORIA-GASTEIZ** **La Catedral de Vitoria** · 945 275 955 www.alberguecatedral.com/eu
**GALDAMES** **Areitz Soroa** · 685 790 558 www.albergueareitzsoroa.es

## KANPINAK

**ZARAUTZ** **Gran Camping Zarautz** · 943 831 238 www.grancampingzarautz.com/es
**ZUMAIA** **Camping&Bungalows Zumaia** · 943 860 475 www.campingzumaia.com/es
**ORIO** **Camping Orio** · 943 834 801 · oriokanpina.com
**MENDEXA** **Camping-Rest. Leagi** · 946 842 352 www.campingleagi.com

## JATETXEAK

Deskarga ezazu Familia Turismoa Euskadin klubera atxikitako jatetxeen zerrenda

# INFO práctica

**EUSKADI TURISMO**
turismo.euskadi.eus/es
**TURISMO ÁLAVA**
www.alavaturismo.eus
**TURISMO BIZKAIA**
www.visitbiscay.eus
**TURISMO GIPUZKOA**
www.gipuzkoaturismoa.eus

## *Oficinas de turismo*

### *Álava*

**AMURRIO**
945 393 704 · www.amurrioturismo.com
**ELCIEGO**
945 606 632 · www.elciego.es
**LABASTIDA**
945 331 015 · www.labastida-bastida.org
**LAGUARDIA**
945 600 845 · www.laguardia-alava.com
**MURGIA**
CUADRILLA DE GORBEIALDEA
945 430 440 · www.gorbeialdekokuadrilla.eus
**QUEJANA**
945 399 414 · www.aiaraldea.org
**SALINAS DE AÑANA**
945 355 089 · www.ananaturismo.com
**SALVATIERRA-AGURAIN**
945 302 931 · www.visitlautada.com
**SANTA CRUZ DE CAMPEZO**
CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA
945 405 424 · www.arabakomendialdea.eus
**VILLANUEVA DE VALDEGOVIA**
945 353 040 · www.valdegovia.com
**VITORIA-GASTEIZ**
945 161 598 · www.vitoria-gasteiz.org

### *Bizkaia*

**ARENA** (MUSKIZ)
662 547 468 · www.visitenkarterri.com
**BAKIO**
946 193 395 · www.bakio.eus
**BALMASEDA**
946 802 976 · www.visitenkarterri.com
**BARAKALDO (BEC)**
944 995 821 · www.visitbarakaldo.eus
**BERMEO**
946 179 154 · www.bizibermeo.eus
**BILBAO TURISMO**
944 795 760 · www.bilbaoturismo.net
**BILBAO AEROPUERTO**
944 031 444 · www.euskadituirismo.eus
**BILBAO, GUGGENHEIM**
944 795 760 · www.bilbaoturismo.net
**DURANGO**
946 033 938 · www.turismodurango.net
**ELORRIO**
946 820 164 · 688 776 270 · www.visitelorrio.com
**ENCARTACIONES ENKARTUR**
946 802 976 · www.visitenkarterri.com
**GAZTELUGATXE**
946 179 154 · www.bizibermeo.eus
**GERNIKA-LUMO**
946 255 892 · turismo.gernika-lumo.eus
**GETXO**
944 910 800 · www.getxo.eus/turismo
**GORDEXOLA**
946 799 704 / 946 798 061 · www.gordexola.eus
**GORLIZ**
946 774 348 · www.visitgorliz.eus
**KARRANTZA**
946 806 928 · www.karrantza.org
**LEKEITIO**
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus
**MENDATA**
946 257 204 · www.mendata.eus
**MUNDAKA**
946 177 201 · www.mundakaturismo.com
**MUSKIZ**
946 802 976 · www.visitenkarterri.com
**MUXIKA**
946 257 609 · www.urremendi.org
**ONDARROA**
946 831 951 · www.ondarroa.eus
**ORDUÑA**
945 384 384 · www.ordunaturismo.com
**OROZKO**
946 122 695
www.gorbeiaeuskadi.com
**PLENTZIA**
946 774 199 · www.visitplentzia.com
**PORTUGALETE**
944 729 314 · www.portugalete.org
**SANTURTZI**
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus
**SOPELA**
944 065 519 · www.turismoa.sopelaudala.org
**SOPUERTA**
946 104 028 · www.visitenkarterri.com
**TRUCIOS-TURTZIOZ**
946 109 604 · www.turtzioz.org
**URDAIBAI-BUSTURIALDEA**
946 257 069 · www.turismourdaibai.com
**ZIERBENA**
946 404 974 · www.zierbena.net

### *Gipuzkoa*

**ARANTZAZU**
943 796 463 · www.turismodebagoiena.eus
**ATAUN**
943 180 335 · www.goierriturismo.com
**AZKOITIA** (LOIOLA)
943 851 100
www.urolaturismo.eus
**AZPEITIA** (LOIOLA)
688 874 861 · www.urolaturismo.eus
**BERGARA**
943 769 003 · www.bergaraturismo.eus
**DEBA**
943 192 452 · www.deba.eus
**ERRENTERIA**
943 494 521 · www.oarsoaldeaturismoa.eus
**ESKORIATZA.** MUSEO IBARRAUNDI
943 715 453 · www.eskoriatza.eus
**GETARIA**
943 140 957 · www.getariaturismo.eus
**HONDARRIBIA** PUERTO DEPORTIVO
943 576 102 · www.bidasoaturismo.com
**HONDARRIBIA**
943 643 677 · www.bidasoaturismo.com
**IDIAZABAL**
943 188 203 · www.idiazabalturismo.com
**IRUN**
943 020 732 · www.bidasoaturismo.com
**LEGAZPI** COMARCA UROLA GARAIA (LENBUR)
943 730 428 · www.lenbur.com
**LEINTZ GATZAGA**
943 714 792 · 943 714 746 · www.gatzagaturismo.com
**LIZARRUSTI** (PARKETXEA)
943 582 069 · lizarrusti.com
**MUTRIKU**
943 603 378 · www.mutriku.eus/turismo
**OIARTZUN - OARSOALDEA**
943 508 913 · www.oarsoaldeaturismoa.eus
**OÑATI**
943 783 453 · www.oñatiturismo.eus
**ORDIZIA**
943 882 290 · www.delikatuz.com/es/turismo-en-ordizia
**ORIO**
943 835 565 · turismo.orio.eus
**ORMAIZTEGI**
943 889 900 · www.zumalakarregimuseoa.eus
**PASAIA-OARSOALDEA**
943 341 556 · www.oarsoaldeaturismoa.eus
**SAN SEBASTIÁN TURISMO**
943 481 166 · www.sansebastianturismoa.eus
**SEGURA** (CASA ARDIXARRA)
943 801 749 · www.ardixarra.eus
**TOLOSA** TOLOSALDEA TOUR
943 697 413 · www.tolosaldea.eus
**ZARAUTZ**
943 830 990 · www.turismozarautz.eus
**ZEGAMA**
943 802 187 · www.zegamaturismoa.net
**ZERAIN**
943 801 505 · www.zerain.eus
**ZESTOA**
943 868 812 · www.zestoaturismo.net
**ZUMAIA**
943 143 396 · www.zumaia.eus/turismo
**ZUMARRAGA** (LA ANTIGUA)
943 722 042 · www.urolagaraia.com

## *Ecoturismo*

**ECOTURISMO EUSKADI**
www.ecoturismoeuskadi.eus

## *Parques Naturales*

**RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI**
946 257 609 · www.turismourdaibai.com
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus
**PARQUE NATURAL DE GORBEIA**
945 430 440 · 946 122 695
www.gorbeiaeuskadi.com
**PARQUE NATURAL DE AIZKORRI-ARATZ**
Anduetza 943 802 187 · 688 623 609
Arantzazu 943 782 894 · 699 335 183
goierriturismo.com
**PARQUE NATURAL DE ARALAR**
Barandiaran 943 180 335 · 688 895 069
Lizarrusti 943 180 335 · 688 895 069
www.gipuzkoanatura.eus
**PARQUE NATURAL DE URKIOLA**
946 814 155 · www.urkiola.net
**PARQUE NATURAL DE ARMAÑÓN**
946 560 079 · www.visitenkarterri.com
**PARQUE NATURAL DE PAGOETA**
943 835 389
www.gipuzkoanatura.eus
**PARQUE NATURAL AIAKO HARRIA**
943 494 521
www.gipuzkoanatura.eus
**PARQUE NATURAL DE IZKI**
945 410 502 · www.izkiparkea.eus
**PARQUE NATURAL DE VALDEREJO**
945 353 146 · www.valderejoparkea.eus

## *Geoparques*

**GEOPARKEA**
www.geoparkea.eus

## *Senderismo*

**SENDERISMO EN EUSKADI**
www.senderismoeuskadi.eus
**CAMINO DE SANTIAGO**
www.turismo.euskadi.eus

## *Cicloturismo*

**BTT EUSKADI**
www.turismo.euskadi.eus/es/btt
**VÍAS VERDES**
www.viasverdes.eus

## *Surf*

**SURFING EUSKADI**
946 195 861 · www.surfingeuskadi.eus

## *Turismo activo*

**AKTIBA**
637 770 033 · www.aktiba.eus

## *Agencias de Receptivo*

**ATRAE**
689 77 54 23 · www.atrae.eu

## *Transporte*

### *Álava*

**AEROPUERTO**
945 163 500 · 913 211 000
www.aena.es
**TRENES RENFE**
Plazuela de la Estación s/n, Vitoria-Gasteiz
912 432 343 · www.adif.es
**AUTOBUSES**
Estación central Vitoria-Gasteiz · 945 161 666
Autobuses Urbanos de Vitoria-Gasteiz TUVISA
945 161 054 · www.vitoria-gasteiz.org/transporte
**TRANVÍA EUSKOTREN**
944 333 333
www.euskotren.eus

### *Bizkaia*

**AEROPUERTO**
Bilbao-Loiu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es
**CRUCERO Y FERRY**
944 234 477 · www.brittany-ferries.es
**TRENES**
Estación de Abando Indalecio Prieto (Renfe)
Plaza Circular, 2 · 912 432 343 · www.adif.es
Euskotren · 944 333 333 · www.euskotren.eus
Estación de la Concordia; FEVE Bilbao
Calle de Bailén 2 · 912 320 320
www.renfe.com
**AUTOBUSES**
Intermodal (Estación de autobuses)
Gurtubai 1 · 944 395 077 · www.bilbaointermodal.eus
Bilbobus (Autobuses municipales)
946 855 000 · 944 790 981
www.bilbao.eus/bilbobus
Bizkaibus (Autobuses, provincia y aeropuerto)
946 125 555 · ww.bizkaia.eus
**METRO BILBAO**
946 855 000 · www.metrobilbao.eus
**TRANVÍA**
944 333 333 · www.euskotren.eus

### *Gipuzkoa*

**AEROPUERTO**
Gabarri 22 · 20280 Hondarribia
913 211 000 · www.aena.es
**AUTOBUSES**
Estación de autobuses de Donostia-San Sebastián
943 475 150
Federico García Lorca, 1
www.estaciondonostia.com
Dbus (Urbanos)
943 000 200 · www.dbus.eus
Lurralde Bus (Interurbanos)
943 300 340
www.lurraldebus.eus
**TRENES**
Estación del Norte de Donostia-San Sebastián
Paseo de Francia 22 · 912 432 343
www.adif.es
Estación de Amara (Euskotren)
Paseo de Easo 9 · 944 333 333
www.euskotren.eus



# Nire Bidaia-egunkaria

Idatzi edo marraztu abentura honetan gertatu zaizun gauzarik dibertigarrienaren inguruan: Gehien gustatu zaizuna, anekdotak, zerk harritu zaituen...

# Ezinbesteko 10 esperientzia Euskadin

Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak. Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.

## Bilbao



## Donostia



## Vitoria-Gasteiz



## Gernikako Batzar Etxea



## Bizkaia Zubia



## Gaztelugatxeko Doniene



## Urdaibai



## Cristóbal Balenciaga Museoa



## Loiolako Santutegia



## Laguardia



turismoa.euskadi.eus/eu/

EUSKADI
BASQUE COUNTRY


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

FSC MIXTO Papel FSC® C014864